


Joxe Ayerbe

# Alako batean



7243

GAS-129/2

# Alako batean

---

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 — 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxe Ayerbe

# Alako batean

---

Auspoa Liburutegia  
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-63-1

Legezko Gordailua: S.S. 71/98



*Aita, Bartolo, seme-alaba eta erraiñekin.*



*Joxe eta emaztea.*

# Itzaurrea

---

**G**URE Joxe'ren galdera lengo egun batean:

— Zuk, aita, geiago idatziko zenukela diozu. Ez al zera oraindik aspertu? Ba, nik jarriko dizut lan pixka bat egin nai badezu.

*Nik esan nion orduan:*

— *Nik egiteko moduko lana badek saiatuko nauk.*

— *Ara zer: Ni ere liburua ateratzeko asmotan nabil, aita, eta, itzaurrea zuk idaztea gustatuko litzaidake.*

— *Bai, motel, pozik egingo diat. Biar bertan asiko nauk gaiñera. Ik nerean egin uan bezin txukun eta ik merezi bezela ez diat egingo, baiña aal dedan ondoren egiten aalegiñak egingo dizkiat.*

\*\*\*\*

*Gu, familian, oso ondo unituak izan gera beti. Elkarri errespeto aundian bizitu gera. Neri ez didate bein ere itz bat bueltatu bear ez dan moduan.*

*Denak dira bakoitza bere erara, baiña Joxe, bati-pat, familiko laguntzalle aundia izan degu beti. Bera eta bere alaba Mirari'k lagundu didate liburuak argitaratzen. Eta oraintxe ere, medikuarengana joan bear degula edo, au dala edo ori dala, berak eramaten gaitu segituan bere kotxearekin.*



Joxe'k oso gazterik ikasi zuan baserriko lanak egiten. Amalau urterako nik baiño obeto sega pikatu eta belarra ebakitzen zuan. Amasei urte zituenerako baserritar egiña zan.

Etxean bagenduan apopilo bat, oso mutil ona, eta ofizioz arotza zana. Aren bearra izan zan baserriko aparejuak egiteko: gurdi, lera, arre, eskubare, sega-kirten eta abar.

Joxe'ri, ari begira egoten zalako edo, or sortu zitzaion arotzerian asteko gogo. Berandu xamar zuan ofizioa ikasteko, emezortzi urte bai ordurako, baiña soldadu joaterako ia ofizial egiña zan. Beraz, bi ofzioren jabe zan ordurako: baserritar eta arotz. Guri ondo etorri zitzaigun etxean bear ziran mueble eta abar egiteko, lan asko egiten zuan eta.

Baiña, Joxe'k ere soldadu joan bear bere garaian besteak, bezela, eta Afrika'ra suertatu beste euskaldun batzuekin batera. Eta ixil-ixilik joan egin bear, gu danok penetan utzi arren.

An naiko suerte txarra izan zuan, erniatik operatu bearrean gertatu zan; baiña berak etzigun, guri, ezer abixatu. Berarekin zegon baten etxeoak esanda jakin genduan, eta oso ondo egin zuan ez esatea. Bestela gu pena ta kezka geiagorekin egongo giñanda.

Soldadu joan arte apenas emen bertsozik jarri zuan Joxe'k; nik ez det uste beintzat. Koartelean izan bear zuan soldadu lagunuen bat bertsozalea edo, eta andik asi zan kartaz bertsoak bidaltzen. Gu berriz, poztu egiten giñan, umorean egongo zala pentsatuta.

Soldaduzka aurretik, etxean jaietan eta famili billerak egiten genituanean aritzen giñan bertso zarrak kantatzen. Joxe'k orduan bai nik idatzita emandakoak ikasi, baiña orain geienak aaztu egin zaizkio. Guk familiarteko denak degu bertsoarako

griña; eta oraindik ere, otordu edo billera bereziren bat danean, aritzen gera zerbait. Bertso zaarrik etzaigu faltako. Berriak ere bai, orain arte nolako edo alako. Aoz-ao ni erdizkakoa eta ni aiñakorik ere ez dakit badan besterik. Baiña aurrera, orain arte bezela, segitzea desio diotet biotzez.

Joxe nekez asi zan, berandu, bertsoak idazten serio, esposatuta gero, baiña urte batzutan asko idatzi zuan. Liburu on bat osatzeko eta geiago ere badu, nunbait. Suerte on bat izan dezala liburua argitaratzeko eta familiko bizitzarekin. Nik ezin dezaket ezertan lagundu geiago.

Orrenbestez uztera niak lan au. Nik aal dedana egin diat. Ez nian egingo ik merezi bezin ondo ta txukun, baiña gustora egin diat.

Nik egunero eskatuko ziot, burua sano detan arte beintzat, Jainkoari nere otoitzetan famili danentzat gauzak ondo joan ditezen. Ala gerta dedilla.

BARTOLO AYERBE zanak

# Eskerrik asko

---

**A**UXE izan zan azkena idatzi zuana aitak. Andik egun gutxira il zan. Oso idea ona eta une egokian sortu zitzaigula ez dago esan bearrik.

Idazten gustora ari zala igartzen zitzaion gaiñera; itzegiten genduan bakoitzean: *“Oraintxe aurreratzen ari nauk ire lana, ondo baldin banaiz, urrengo astean ortxe-ortxe bukatuko diat.*

*Luze samarra dek, baiña, ez dek oso txukun ere egongo ta, iruditzen zaikena jarri eta etzaikena kendu,; eorrek ikusi...”.*


Ordurako bazekien berak ere, ondo asko, luza-  
rorako etzegoala.

\*\*\*\*

Bai, aita, oso ondo dago. Orixe nai nuan. Gaiñera, nola egiña dagoan ez da ain garrantzitsua, nork egiña dan baizik. Zuk egin dezu eta orrek du, aita, neretzat, benetako balioa. ESKERRIK ASKO.

Bakar-bakarrik auxe esango nizuke: geiegi gorai-patu nauzu. Ez det alako gauza berezirik egin. Aita maite duan seme bat bezela portatu besterik ez.

Pena bat daukat, ordea, eta ez txikia: ni zure liburuekin bezela, nere au argitaratzean, zu, nere ondoan ez izatea besarkada bat emateko.



*Larogitamar urte bete zituan egunerako  
egin nion irudia.*

*Eman nionean antzeko zerbait bota zuan:*

*Jaungoikoari esker bizitu  
naiz orrenbeste urtian,  
eta ori etzan izango, noski,  
iñorentzako kaltian.  
Baiña mundu au utzi bearra  
daukat egunean batian,  
irudia or geldituko da  
ni emendikan jutian*

# Aitaren eriotza

---

- 1 Gertatu danak gertatu bear  
zuala naiz jakin aurrez,  
ikusi arren ez da ordea,  
beti sinisten ain errez.  
Zure eriotzak utziak gaitu  
penaz da pozez negarrez,  
beti emen nai zindugun baiña,  
emen betiko iñor ez.
- 2 Maite ginduzun, maite zindugun,  
baiña ordua eltzean,  
utzi gaituzu eta badegu  
naiko pena biotzean.  
Aldi berean poza ere bai  
penak uzteko atzean,  
ze bizitza ta ze eriotza  
izan dezun oroitzean.
- 3 Zure ondoan pasa ditugu  
amaika une atsegin,  
ejenplo onak eman ez beti  
argi ta gozo itze gin.  
Jainkoak deitu dizunean naiz  
gure ondolik aldegin,  
nai badegu ta kapaz bagera,  
badakigu, bai, zer egin.

5 Bertsotarako griña zugandik  
datorkidala jakiñik,  
lan au artzea ez da arritzeko,  
ainbeste zor badizut nik.  
Bizi izan ziñan arte bertsoak  
ain gogozkoak izanik,  
ilda eskeiñiko ez banizkizu  
ez neukake barkamenik.

6 Kristautasuna eta fedea  
sendoak izan dituzu,  
eta dudarik gabe zeruan  
ortxe egongo zera zu.  
Gu berriz, aita, alde ortatik,  
otz samarrak, badakizu...  
baiña, guk ere zerua nai ta  
arren lagun egiguzu.

\*\*\*\*

Eskerrak emateko garaian badaukat nori emana. Leenengo nere guraso izandakoei. Izan ere, aitak ezezik, ama zanak ere bertsoak oso gustokoak izanik, nigan zaletasun au piztu arazi eta bertso-giroan azi eta ezi nindutelako.

Gero, ez naiz aspertuko esaten: Agustin Miner "Zaloña" eta Yon Oñatibia abertzale eta euskaltzale sutsuei euskaltzaletu eta euskera lantzen ainbat lagundu zidatelako. Basarri aspaldian gaxorik dagoen bertsolari aundiari ere bai; aserako une garratz aietan ainbat animatu, lagundu eta nere bertsoak argitaratuz ezagutzera emateagatik.

Azkenik, nola ez, Aita Zabala'ri bereziki eta SENDOA argitaldariari, Joakin buru dala; beraiei esker bertsoak jaso, liburu au gauzatu eta argia ikusi aal izan dualako.

# Xegundo Kalonje adiskideari

---


**L**IBURU au argitaratzeko asmoa artu zutela-ta prestatzen asi nendin dei egin zidatenean, Xegundo'rena ere ateratzekoa zala esan zidaten; biak batera egiteko asmoa zutela. Berri ark izugarrizko poza eman zidan.

Nola ez nintzan, ba, poztuko, aspaldi batean, bertso-paper sariak jasotzerakoan alkar ezagutu eta, orain, liburua ere batera argitaratzekoa dala jakiñik?

Baiña, tamalez, ez degu oraingoan alkar ikusiko, Xegundo beste mundura joana da-eta, G.B. Edadean aldea izan arren, bereala egin giñan lagun. Izan ere ain zan iztuna eta atsegiña...!

Il zanean, besterik ezin egin eta, au idatzi nuan berari buruz:

*Adiskide bat joaten zaigunean, illeta elizkizunera joaten bagera eta sendi-artekoei samin-agurra emateko aukera izaten badugu eman, eliz-atarian aspaldian ikusi gabeko zenbait lagun zaar agurtu eta berriketa-aldi bat egin, ildakoa gorai patuz: " Ez ukan, ba, mutil txarra. Nik ez nekikan gaixo zegonik. Zaartzaroak ez dik eraman, baiña leenxeago edo geroxeago danok egin bear dugun gauza izan; eta orri etzegok iges egiterik". Eta antzeko gauzak esanez bukatzen dira, geienetan gure egitekoak.*



*Argizaiola au eta ondoren datozen lanak Joxe'k egiñak.*



Orain berriro, oietako adiskide jator bat galdu dut, baiña, utzi eziñezko egin bearrak nituelarik, orixe egiteko ere aukerik ez nuan izan. Eta nere utsegitea aitortuz eta barkamena ezkatuz, berari zertxo bat esateko asmo eta naia sortu zait:

— Aizu, Xegundo, ain gogozkoa zenuen bertso-mundua dala medio, badira urte batzuk ezagutu zindudala, eta ain iztun atsegiña eta apala izanik, bat-batean egin giñan lagun. Izketan asita, denbora asko baiño leen jotzen zenuan bertso gaietara. Antxe aurkitzen zenuen gozamina izugarria izan nonbait!

Baserritarra ziñan izatez eta bizibidez, eta artan pasa zenituan, poz eta naigabe artean Jaunak dei egin zizun arterañoeko egunak. Badakit, baitere, besteak beste, lagunartean bertsoan aritzea zeñen gogozkoa zitzaizun. Baiña, neri dagokidanez, bertso-jartzaile bezela ezagutzen zindudan, batipat.

Nik ez dakit, zuk, noiz eta nola osatzen zenituan ainbat bertso bikain, baiña bear bada zelaitik edo ikullutik, lanak egin ondoren, sukalde txokora izarditan sartu eta legortzeko astirik gabe asiko ziñan, egunean zear buruan jirabiraka zenbilkien gaiari buruz itzak neurtzen. Agian, bazkal ondoko lokuluxkari uko egiñez edo, gauari elduaz, bein baiño geiagotan. Asmatu al dut, Xegundo?

Nolanai ere or dago, zuk apalki eta ixiltasunean egindako lana. Eta iñoiz zalantzik izan bazenuen, jakin ezazu, guk arreta biziz eta atsegiñez irakurtzen genituela, zuk ain euskera goxo eta errezean burututako bertso guztiak

Zure adiskide zintzo batzuegandik aipamen xamurrak jaso dituzu, baiña, izango ote duzu merezi ainbat? Nik, nere eskasean, zerbait esan nai nizun. Zuk, ordea, geiago merezi duzula uste dut.

Aurki arte, XEGUNDO!

# Jakin dezazun

---

**L**IBURU ontan, onak edo txarrak —txarra geiago noski— era askotako bertsoak dituzu: tristeak, alaiak, eskeak, iritziak, gertakizunak, oroitzapenak eta abar; bizitza beraren antzekoak.

Gure bizitza berak ere oso une ezberdiñak ditu, eta bertsoak, gu geu aurkitzen geran egoeraren adierazgarri garbiak izaten dira geienetan.

Nolanai ere, oroar jota, edo batez-beste artuta, liburua atsegin izango zaizulakoan gaude. Eta ori ez badegu lortu, ez da izango aalegiñak egin ez ditugulako, obeto egiteko kapaz izan ez geralako baizik.

# Soldadutza

---

**B**ERTSO bezela, auek, ez dute asko balio, baiña neretzat badute alako esanai berezi bat. Ez dira oraingoxeak, berrogei urtetik gora dituzte, baiña nere lendabiziko bertsoak dira, eta Afrika'n (Tetuan'en) soldadu nengoala idatziak ain zuzen. Orregatik, eta oraindik jasota neuzkanez, muestrako bakar batzuk jartzea pentsatu det. Denak ez, txarrak izatekotan zenbat eta gutxiago obe baita.

1 Zerbait nolabait esan naiean  
astera nua kantari,  
soldaduaren bizimodua  
esan nairik lagunari.  
Abilidadez eskas nago ta  
eskatzen diot Jaunari,  
Beraren bidez probetxu on bat  
ateratzeko lanari,  
nola laguntza ematen dion  
bearrean dagonari.

2 Milla beatzireun berrogei eta  
amaseigarren urtian,  
amabost egun Ilbeltzak eta  
sartu giñan suertian.

Gure Jaunari eskatu nion  
txit debozio fuertian,  
baiña ez gera konturatutzen  
garaia etorri artian,  
serbitutzia tokatu zaigu  
Afrika aldeko partian.

3 San Jose eguna siñalatu  
ezingo zaigu borratu,  
familia ta lagun guztiak  
egin nituan agurtu.

Donostia'ko estazioan  
trena gendunian artu,  
orduante bai neri tristura  
barru-barruraino sartu,  
ta Martxoa'ren ogeitairuan  
Tetuan'a allegatu.

4 Paraje ontan sartu giñan da  
guretzat ain zan arrotza!  
Beteranuak, agindu nairik,  
begiratua zorrotza.

Biraua edo maldizioa  
esandako itz bakoitza,  
eta gogortu egiten dizu  
biguin daukazun biotza,  
berritan beintzat penagarria  
soldaduaren bizi-tza.

Zu baiño urtebete zaarragoa izatea beste meritu-  
rik edo gradurik ez duan batek ala tratatu, burla  
aiek egin eta zuk ezer egiterik ez daukazula jakite-  
ak, min izugarria ematen du, bai leen eta bai orain.  
Baiña, agidanez, jarraitu egiten da gaur ere gisa  
ortako geiegikeriak edo abusoak egiten.

Bein baiño geiagotan pentsatu izan det, garai aietan euskeraz idazten arrapatu banindute, permisoren bat emango zidatela seguru asko, baiña etzan izango etxera etortzeko... Ez asko geiagorako kapaz giñalako, baiña etxera euskeraz ez baiña erderaz idazten genduan, eta zerbaitegatik izango zan.

# Ezbearra

---

**E**ZKONDU eta andik iru urtera, 1967'an, 33 urte nituala izan nuan ezbear gogor batek, zearo aldatu zuan nere bizitza. Luzaroan egon nintzan osatu eziñik. Osatu bai azkenean, baiña nere lanerako aalmenak naiko mugatuak gelditu ziran. Ainbestean konten ala ere... Egoera artan, pentsatzeko denbora asko izaten nualako edo, berpiztu egin zitzaidan idazteko zaletasuna. Orduan asi nintzan berriro. Gaia asmatzeko, berriz, ez neukan burua asko nekatu bearrik.

Ezbear ura gertatu ezean ez nintzan asiko lan auetan: bertso-idazten, euskera lantzen eta geroago itz lauz idazten eta abar. Ortan seguru nago. Beraz, alde txar askoren artean dena kalterako izan zanik ere ezin esan. Ezbearrari buruz ez det besterik esango; bertsoak irakurriz jabetuko zera ondoen.

Ezbear txar bat dala medio asi bear det mintzatzen, okerra noiz da nola datorren iñork ezpaitu asmatzen. Ustez seguru gabiltzanean aundinak dira gertatzen, errez min artu baiña ez dira guk nai orduko sendatzen.

- 2 Milla beatzireun irurogei ta  
zazpigarrego urtean,  
gogoan ondo jasotzearren  
Santa Kruz egun goizean.  
Zer gertatu dan esan bear det  
ta Loyola'ko partean,  
berialaxe jakingo dezu,  
itxogin pixka batean.
- 3 Nonbait guretzat sortuak dira  
bai goxo eta bai miñak,  
bakoitzarentzat bere neurrian  
gure Jainkoak egiñak.  
Une onetan neretzat dira  
ordu ta egun samiñak,  
pazientzia emango al dit  
zeruko Ama Birjiñak.
- 4 Adierazi al dan ondona  
nai det gure gertaera,  
garbi esaten saiatutzeko  
lagun bi ere bagera.  
Azensorian topo egin da  
igo bai giñan batera,  
seigarrenera iritxi eta  
erori andikan bera.
- 5 Bata besteai begiratuaz  
biok zarrazki batian:  
“Zer etorkizun ote daukagu  
lurreraño irixtian”.  
Nere orduko pentsamentuak  
geiago ere bazian,  
kontentu egon gaitezke, lagun,  
alere orrenbestian.

6 Kolpe gogorra artu genduan  
bera iritxitakoan,  
lendabiziko itzak auk ziran  
oraindik dauzkat gogoan.  
Galdera auxe egin zenidan:  
“ia zer moduz nengoan?”  
Burua argi gendukan baña  
gorputza al zan moduan.

7 Lagun jatorra, egin didazu  
zintzo ta zuzen bixita,  
azaldu dezu ez naukazula  
alde batera utzita.  
Ni berriz ezin geiago poztu  
ondo zaudela ikusita,  
zuretzat gaitzik ez bedi izan  
ez dezu ba merezita.

8 Adiskidea sendatu zera  
ni baño askoz lenago,  
bietatik bat ondo bear da  
zu izatea naiago,  
Orain ni ere ondo arkiturik  
oso asarre ez nago,  
garai batean ez bai nun uste  
alkartutzerik geiago.

9 Ordu ezkeroz ementxe nago  
mintsu elbarri tartean,  
iñola ere ezin mugitu  
beti postura batean.  
Eguna joan da eguna etorri  
ainbatxo illabetean,  
ondo jartzeko itxaropena  
alere nere ustean.



10 Badakit, jaunak, dirala auek  
txit oso kontu tristiak,  
baiña egiak ez du merezi  
aitortu gabe uztiak.  
Oraindik geio badira eta  
esango ditut guztiak,  
eskarmentua izan dezaten  
gero nerekin bestiak.

11 Okerra bear duan garaian  
ez da izaten zuzenik,  
nereak ala bearko zuan  
ta ez dago zer esanik.  
Badakit emen ez dala iñor  
deskuidatutzen ez danik,  
baiña arretaz jarrai dezagun  
ez dedin galdu gizonik.

12 Nola litezke ola puskatu  
oraindik gauza berriak?  
Ez noski, auek, egon ba´ lira  
bear bezela jarriak.  
Orra ze kalte ekarri duan  
gizonen zabarkeriak,  
edo ez al du bate balio  
kristau batzuen biziak?

13 Ainbat garrantzi duan gauzekin  
ajola gabe asita,  
ezin gaitzke lasai ibili  
orrela gauzak jarrita.  
Kontzientzia zer da nola dan  
ez dezute ikasita,  
baizik dirua gogoz maitatzen  
kristautasuna utzita.

- 14 Nagusi eta langille ere  
berdintsu ditut juzkatzen,  
bakoitzak bere eginkizunak  
ez badituzte betetzen.  
Nolanai lana egin da berdin  
oiek bait dira ordaintzen,  
okerrik asko egingo dute  
ez baditugu zigortzen.
- 15 Anai-arrebak, konsejutxo bat  
asi bear det ematen,  
biotz-biotzez beste gauzikan  
ez diot iñoi esaten:  
“Saiatu zaite gauza guztiak  
bear bezela egiten,  
nola zuk ala besteak ere  
lo lasai egin dezaten”.
- 16 Pazientzian sufritzen Jaunak  
erakutsi dit ederki,  
ori ez duna galduta dago  
berak'e ondo badaki.  
Neure ustetan ez izan arren  
askok dun ainbat aitzaki,  
zenbat naigabe pasatu deten  
Jainkoak bestek ez daki.
- 17 Orain eskerrak eman nai diet  
nere ingurukoari,  
ta batez ere etxeko eta  
nere emazte onari.  
Nai ez detala eman dizutet  
eginkizuna ugari,  
ala dalako, gaur bizi naiz ta  
eskerrak berriz danari.

18 Ez bedi berriz olakorikan  
iñoiz iñori gertatu,  
bestela berriz Jaungoikoari  
pazientzia eskatu.  
Zuk, nagusia, lana ondo egin,  
lagunikan ez zanpatu,  
sekula ez aaztu zabarkeria  
nun naitan dala pekatu.

# Joxe Migel Maiz'i

---

**A**NDIK lasterrera, Joxe Migel Maiz Aiako korrikalariak, Lasarteko lasterketa famatua irabazi zuan, eta aurrez ezagutzen nualarik, bertsoak jartzea okurritu zitzaidan. Jarri nituan, eta: "Orain zer?"

Basarri'ren lanak irakurtzen nituan eta ikusi ere bai nola jendeak bertsoak bidaltzen zizkion berak argitaratu zitzaiz; eta beldurra eta zalantza artean: "Nik ere bidali egin bear zizkiot" esan nuan nereki-ko. Esan eta egin, baita argitaratu ere. Orregatik, leen ere esana naiz, Basarri'k asko lagundu eta animatu nindula, eta orren lekuko, ara emen zer zion 1968-2-15-ko egunkarian:

*Lengoa adierazten nizutenez, Joxe Migel Maiz'i bertsoa erruz atera dio jendeak. Donosti'ko Antigua'n bost illabetean gaxo arkitzen dan batek, beste ainbaten artean.*

*Baserritarra dala dio, orain kalean bizi bada ere. "Etxetxo" baserrian morroi egon zan garaian ezagutu omen zun Maiz. Ona emen bere bertso bakar batzuk:*

1968-2-15  
Ain laisterkari sonatuekin,  
botarik beldur da lotsak,  
beti aurretik ibili zera,  
astinduz orko lokatzak.

Kanpotar oiek izan ez arren  
menderatutzen errezak,  
indarra nunbait bein da berriro  
euskaldunaren arrazak.

2 Zenbaitek ainbat erronka gabe  
iritxi zera gallena.  
beste aldera ikusten degu  
gaurko jenderik geiena.  
Arrokerian zertan ibili  
ixilik egin leikena?  
Bear danean azaldutzea  
ez al da gauzik onena?

3 Laisterkaritzan asiagatik  
aukeran zerbait berandu,  
berez artako jaioa danak  
berekin eramaten du.  
Mundu guztiak galdera auxe  
orain sarri egiten du:  
“zurekin giro etzala gai au  
lenago artu bazendu”.

*Etzaitut ezagutzen, baña gaztea izango ote zeran  
derizkiot.*

*Dotore moldatu dituzu zeure lore-txortak. Asko  
eskertuko dizkitzu Joxe Migel jatorrak.*

*Lenbait'len sendatu, indartu, ta zeure zeregiñe-  
tan astea opa dizut biotz erditik.*

\*\*\*\*

Andik lasterrera, beste bertso batzuk argitara-  
tzearekin batera, Basarri'k, orduko *La Voz de  
España* n onela zion: *Aierbe'k, bere kartan adieraz-  
ten didanez, gero eta zaletasun geiago nabaitzen du  
bertsoak antolatzeko.*

*Joxe, bat-batean piztu zaizun zaletasun orri zabaldu ateak. Jarraitu bertso-moldatze lanean. Derizkiozunerako badakizu zerbitzari bat nun daukazun. Aleginduko naiz, tarteka-tarteka zure lanak argitaratzen”.*

Besterik ez nuan falta! Bultzaizo uraxe, bertsoak idazten jo ta ke asteko! Buruan ia beste gauzarik ez nuala ibili nintzan bolada batean, eta asko idatzi nuan.

Bide batez, euskera aldetik naiko arlote nenbillelarik, etxetik irteteko gauza izan nintzan bezin pronto, alfabetatze ikastaroa egiten asi nintzan beste batzuekin Antigua'ko *Jakintza* ikastolan, Agustin Miner erakusle genduelarik. Gogoz asi, gustora joan —bi makuluren laguntzarekin— egunik utsegin gabe eta denboraz nintzan defenditzeko moduan.

\*\*\*\*

Berriro diot, Basarri'k, asko lagundu zigun bertso-jartzalleoi. Bera izan ezean, zer egin gure bertsoekin? Ez genduan beste aukerarik izango, seguru asko.

Gero, *El Diario Vasco*'n idazten asi giñanean ere, bere babesa bear-bearrezkoa genduan dudarik gabe. Aren anparoan gu ere zerbait bagiñan, bestela...

Baiña, betikoa Jainkoa bakarrik danez, Basarri gaxotu zanean eta idazteari utzi zionean etorri ziran, *El Diario Vasco*'n aldakuntzak eta gure bearrik ezak. Ni artan nago beintzat.

Nolanai ere, Aita Zabala'ren bitartez asi nintzan idazten esandako egunkarian; eta oso gustora idatzi ere. Orregatik eskerrak, berriro, leenengo Aita Zabala'ri, eta baita ere *El Diario Vasco*'ko zuzendaritzari, aukera ura emategatik.

Basarri'k milla bederatzireun eta larogeitabederatziko gaxoaldi gogor ura izan zuala jakin nuanean, bertso aukeratuak eskeiñi nizekion:

- 1 Uste gabeko berria jaso gendun aurreko batean,  
"Egun batzutan ez du idatziko Basarri'k GURE ARTEAN".  
Ia egunik utsegin gabe lanean ainbat urtean,  
aritu dana berriz ikusi nai degu gure artean.
- 2 Orritxo onen argitasuna ez da zurea bakarra,  
baiña zu zera argirik geien egiten duan izarra.  
Zugandik jasotako dizdira guk degun argi pizarra,  
beraz, argia izango ba' da badegu zure bearra.
- 3 Aldakuntza asko izaten ditu gizonak bere bizitzan,  
on eta txarrak, aruntz da onuntz, beti or gabiltz balantz.  
Bein urte oiek arrapatzean nola ajerik ez izan?  
Gazteagoak ere, Iñaki, begira nola gabiltzan
- 4 Leenago ere jasana zera ez dakit zenbat eraso,  
gogortxoena azkeneko au izango dezu akaso.

Ala ta guztiz, nere aldetik,  
itxaropentsu naiz oso,  
oraingotikan ere irtengo  
bait zera oso airoso.

5 Lagun bat gaxo aurkitutzea  
ain zaigu gauza mingotza!  
Zure gaitz ori izan dedilla  
eramankorra ta motza.  
Nolanai ere emango dizut  
oso agindu zorrotza:  
etsipenean erori gabe  
jaso ezazu biotza.

6 Nik pentsatzen det ez dala txarra  
izango zure jarrera,  
eta oizko dezun bezela  
egingo dezu aurrera.  
Udaberria etorri da ta  
egin zaiozu arrera,  
berriak eman eta kantatuz  
kukuarekin batera.



# Egunkari illa

---

**O**SATU edo sendatu bitartean, Antigua bizitu nintzan, emaztearen etxean. An, premia ere bai eta denek, baiña bereziki emazteak eta Axun amagiarrebak oso ondo zaindu ninduten.

Alaba eta bere ama, biak “konkistatu” bear omen dira ondo izateko; eta nik ere orrelako zerbait egingo nuan... Baiña, orain, nik ere ondo zaintzen det amagiarreba; ez al da ala, Axun? Eta alaba, berriz...

Garai aiek eta, batez ere, Agustin Miner gogoraturuz —aspaldiko bere berririk ez det— nik oso gustokoak ditudan bertsoak eskeiñi nai nizkioke. Zergatik? Egun batean, ariketa bezela “DIARIO INACABADO” izeneko lan bat jarri zigun euskeratzeko.

Berak esan zigunez, artista bat il zanean bere gelan-edo, paper artean aurkitutakoa omen zan. Zana-zala, gu euskeratzen saiatu giñan eta, neri beintzat, bertsoak jartzeko gai egokia zala iruditu. Jarri ere bai egin nituan, eta Agustin'i erakutsi nizkionean, asko gustatu zitzaizkion. Sariketara bidaltzeko modukoak zirala esan zidan eta nik bidali. Sarituak izan ziran gainera, oker ez banago.

### **-Urriak 5-**

Aita ta ama, zuek oraindik  
ezer ez dakizutela,  
gaurtik aurrera badet bizia  
beste ainbatek bezela.  
Utsen urrengo izanagatik  
pentsa zerbait banaizela,  
badakit begi urdiñarekin  
nexka izango naizela,  
loreak ere gogozko eta  
nik maiteko ditutela.

### **-Urriak 19-**

2 Apur bat azi arren oraindik  
ain txikia arkiturik,  
bakarrik ezer ez nuke egingo  
ez baneuka laguntzarik.  
Amak lan guzik egiten dizkit  
ezer ez dakielarik,  
ez daki ere ni nola naukan  
biotz azpian sarturik,  
eta azitzen ari naizela  
berai odola kendurik.

### **-Urriak 23-**

3 Aurpegitxoan agoa ere  
asia dago, egiten,  
aurki parrezka asiko naiz ta  
gero berriz itzegiten.  
Beste guziak bezela: AMA!  
lendabiziko esaten,  
norbait naizela ez dakit, beraz,  
zeiñek ukatu lezaken,  
ogi apurrik txikiña ere  
ez al da ogi izaten?

### **-Urriak 27-**

- 4 Ain zuzen ere gaur asia da  
lanean nere biotza,  
eta artu du eten gabeko  
oso egin bear latza.  
Luze bezela berdin liteke  
ura izatea motza,  
bakarrik dakit gelditzen bada,  
neretzako eriotza!  
Baiña oraingoz ez naiz azkena  
baizik asi dan biritza.

### **-Azaroak 2-**

- 5 Atzo baiño gaur aundiago naiz,  
beti nijoa azitzen,  
ankatxo eta besoak ere  
or ari zaizkit tajutzen.  
Baiña oraindik noiz asiko naiz  
ni neure buruz ibiltzen?  
Lasterka nere ankatxoekin  
AMA zugana urbiltzen,  
eta, aita, zu besarkatzeko  
nere besoak zabaltzen?

### **-Azaroak 12-**

- 6 Leen ez nituan beatz txikiak  
sortu zaizkit eskuetan,  
zeiñen txikiak diran oraindik  
arrigarria benetan.  
Baiña bizkorrak izango dira  
beren eginkizunetan:  
loreak bildu ta arkumetxoak  
maite beste batzuetan,  
esku-soiñua jo ere berdin  
aparteko tokietan.

### **-Azaroak 20-**


- 7 Sendagilleak gaur esan dio  
nere amari lenengo:  
“Andrea, zure barruan, noski,  
beste bizi bat badago”.  
“Ez al zenidan, ama, entzuten?”  
esaten nizun lenago,  
alkarren berri jakiteko ere  
oso urruti ez nago,  
baiña ez dakit gaur poztu zeran,  
ni zoraturikan nago.

### **-Azaroak 25-**

- 8 Aitamak ez dakite oraindik  
ni nexkatoa naizenik,  
bixkiak edo mutil naizela  
egongo dira esanik.  
Ze ustekabe artzeko dauden  
ori bakarrik dakit nik,  
izena ere erabaki det  
AMA Mirari izanik,  
nik ere berdin nai det jartzea  
ez det nai beste izenik.

### **-Abenduak 10-**

- 9 Umeak sortzen geran ezkerro  
jartzen degu naiko neke,  
gauz ori AMA danak bakarrik  
egitan esango luke.  
Baiña zuk orain aurpegitxo au  
ikusiko bazenduke,  
nik nai bezela zure antzeko  
naizela esan dezazuke,  
eta ondoez denak aaztuta  
musuka jango zenduke.



### **-Abenduak 13-**

- 10 Pixkat argitzen asiagatik  
illun dago neretzako,  
gogorik asko badaukat, AMA,  
illunpetik irteteko.  
Nere begiak zabaldu eta  
mundu ori ikusteko,  
orko eguzki, mendi, itxaso  
zertsu diran jakiteko,  
zeñen ederra zeran zu, AMA,  
ikusi ta esateko.

### **-Abenduak 24-**

- 11 Zure taupadak entzun nitzake  
naiz zuk ez entzun neriak,  
ez naiz arritzen, auek izanik  
txiki ta indar gabiak.  
Badakit zenbait ama ez dula  
pozten aurra ekartziak,  
naiago dute lasai bizi ta  
egin ditzala bestiak,  
baiña olakorik ez du pentsatu  
iñoiz nere AMA maitiak.

### **-Abenduak 26-**

- 12 Lenago ere banekien nik  
bazirala egun beltzak,  
eta etsaiak menderatutzen  
izaten zirala gaitzak.  
Baiña ez nekin ziñatenikan  
orren guraso eskasak,  
neri bizia ola kentzeko  
zer ziran nere akatsak?  
Alper gaiztoan ez ditut egin  
orain arteko ametsak

# Yon Oñatibia zanari

---

**N**IK ez dakit nola arraio, baiña oso gizon eta emakume jakintsuekin topo egiteko zoria edo suertea izan det nere bizitzan. Topo egin ezezik, arremán interesgarriak izan ere bai zenbaitekin. Oietako bat Yon Oñatibia oiartzuarra izan zan, G.B.

Bein, Antigua'n, euskatzaletasuna oso barrura sartu zitzaidan ezkeroztik, naiz ta lanean ibili, aurrera egin nuan eta Yon'ekin topo egiteko zoria izan.

Yon, beste ainbat ekintzetan eta, batipat, Euskera munduan nor izan zan nik bezin ondo dakizute. Euskera erakustea asko etzala, erakusleak erakusteko prestatzea zan bere eginkizun nagusia.

Ortarako bere-bereak ziran metodo eta liburuak erabiltzen zituan. Zenbat ote da bere metodoarekin euskera ikasia: *Jolas-Bidez*, *Euskera Artez* eta abar; eta, gero, erakusten ere aritua?

Oietako bat nauzute, baiña... tamala benetan! Euskerak eta guk bear-bearrezkoa genduan garaián eraman zuan Jaunak mundu ontatik ezbear baten ondorioz.

Sasoiko zegoan artean, eta arra baiño geiago geditzen etzan oietakoa zanez, zer ez ote zukeen egingo ark, ura gertatu ezean!

Nik, batetik nere eskerrona azaldu nairik eta bestetik bere oroimenez, bertsoak jarri nizkion:

- 1 O, Oiartzun´go seme argia  
apala ta atsegiña,  
lenago ere zure gorantzan  
bada zerbait itzegiña.  
Ez giñan ainbat oroituko, ez  
eskasa izan baziña,  
gure artetik joan ziñan baiña,  
auxe da aaztu eziña.
- 2 Egia esan, leendik ez nuan  
nik asmorik ontarako,  
esatekoak esan dira ta  
nere itzak zertarako?  
Baiña barruko arrak esan dit:  
“ez dagola ortarako”.  
Argatik ekin diot, damurik,  
ez nuke nai gerorako
- 3 Aizu, Yon, entzun al bazeneza  
zure ikasleen itza,  
zuri eskerrak Euskera izkuntza  
zenbatek dezaken mintza!  
Utzi ginduzun ezkeroz lutoz  
Erria eta Jakintza,  
artzai gabeko artalde gisan  
geroztik emen gabiltza.
- 4 Zeiñekin dena erakustea  
izan zan zure afana,  
beste guztiak zure parean  
jartzen egiñaz aal zana.  
Orretarako aukera ederrik  
nunai bazendun emana,  
baiña errua ez da zurea  
gu ikasle txarrak izana.



- 5 Jakitea ta erakustea  
jakiñik berdin ez dala,  
ikasle denak artzen zenitun  
aingeru batek bezela.  
goxo ta xamur, jolas-giroan  
une astunik etzala,  
zure eskutatik pasatakoei  
galdezka asi bestela.
- 6 Jakintsu asko aurki daitezke  
jarri ezkeror artara,  
baiña ez dira denak prestatzen  
erakuste-lan ortara.  
“Nik bazekiat ta dabillela  
bakoitza aal dun erara,  
eta zeozer jakin nai duna  
bijoia Salamanca´ra”.
- 7 Yon zanarekin etzan, ordea,  
orrelakorik gertatzen,  
zuan guztia ematen zuan,  
etzuan ezer gordetzen,  
Kostako zaigu arek egiñak  
bear bezela eskertzen,  
eta JAKINTZA arloan utzi  
zuan tokia betetzen.
- 8 Neretzat oso errez da Yon´ek  
zer nai zukeen asmatzea,  
eta askoren kontzientziak  
baliteke esnatzea:  
EUSKERA eta EUSKALERRIA  
ark bezela maitatzea,  
eta erakutsi zigun bidetik  
eten gabe jarraitzea.

# Fermin Gorostizu'ri

---

**N**OR zan Fermin Gorostizu galdetuko dezu. Fermin etzan gizon entzutetsua; etzan, noiznai, komunikabideetan azaltzen zan kirolari, politiko, jakintsu edo artista sonatu oietakoa. Gizon arrunt bezin apal eta geienentzat ezezaguna baizik.

Baiña ezagutzen gendunok badakigu, ondo asko, bere eguneroko lana eta gañontzeko eginkizunak zein ondo eta zintzo bete oi zituan. Eta ortxe egon, ain zuzen, konturatzen ez bagera ere, gizonaren aunditasuna.

Zurgin edo arotza zan ogibidez. Bestalde, langille asper-eziña, eta eskolatua ez izan arren, burutsua eta artetsua benetan. Zurgintzak etzuan izkutu edo sekretorik arentzat, eta egurra laztanduz lantzen zuala esango nuke.

Neuri ere, gaztetxoa nintzala, berak erakutsi zidan zuaitzak ezagutzen eta maitatzen. Gero, beste maixu ezin-obeak izan banituan ere, Fermin'ek bideratu nindun, iñoiz damutu etzaidan zurgin langintzan asi nendin.

Orregatik, tartetxo bat zuretzat ere, Fermin, eta eskerrik asko erakutsi zenidanagatik.

1 Etziñan gizon entzutetsua,  
etziñan ain ezaguna,  
era zaarreko zurgin bat baizik  
artan oso jakituna.  
Egitekoak leialki eta  
zintzo bete zenituna,  
eta ori izan, gizon apalak,  
aundi egiten dituna

2 Zu ordurako eldua ziñan  
ni, berriz, nintzan mutiko,  
zuk ia dena bazenekien  
da nik dena ikasteko.  
Seme moduan artu ninduzun  
lanean asi orduko,  
zuk emandako konseju onak  
etzaizkit iñoiz aaztuko.

# Felix Erdozia

---

**D**ONOSTI'KO alde zaarrean bada elkarte bat  
*Ur-kirolak* izenekoa, eta, neu ez izan arren,  
bertako bazkide dan lagun-min bat dala medio, asi  
nintzan elkartera afaltzera joaten

Ori dala-ta, lagun berriak egin nituan, eta aien  
artean Felix Erdozia. *Ur-Kirolak*'eko arraunlari aun-  
dia izana, gero taldeko erakusle eta arduradun ere  
bai; eta elkarteko leendakari urte askotan.

Erdozia jaunak 80 urte bete zituanean, omenal-  
di txiki bat egin nai izan zioten bere lagunek eta  
bertso batzuk eskatu zizkidaten, 1995'an. Auek:

1995/11  
Aizu, Felix, nik borondatea  
badakizu badetela,  
baiña ez dago esan bearrik  
kantari txarra naizela.  
Eta sinistu bear didazu  
pena auxe daukatela:  
zuri bertsoak ez kantatzea  
merezi dezun bezela.

2 Urtarrillaren zazpian zaude  
larogei urte beterik,  
Iru Erregeak etorri ziran  
pixka bat atzeraturik.

Baltasar, Gaspar edo Meltxor'ek,  
ez du ajola aundirik,  
baiña ezin zuten ekarri beste  
erregali bat oberik!

3 Oso gazterik asia ziñan  
kirolean eta dantzan,  
eta errimiñak jota ibili  
baita ere gudaritzan.  
Gero arraunean *Ur-Kirolak*'en  
oberikan asko etzan;  
entrenatzalle izan ondoren  
azkenik leendakaritzan.

4 Guda garaian preso Dueso'n  
beste zenbait gudarikin,  
zerbait kontatu diguzu baiña  
denak ez ditugu jakin.  
dakiguna da: "enamoratu"  
egin zirala zurekin,  
Felix, zer moduz konpontzen ziñan  
ango mojatxo aiekin...?

5 Entrenatzalle bezela, berriz,  
badezu zenbait ixtori,  
oso zuzena eta gogorra  
ala esan didate neri.  
Lan asko eta askatasunik  
batere ez mutilleri,  
bestela or daude eta galdetu  
Joxeba ta Iñaki'ri

6 Egia esan, nik ez det uste  
zeranik gizon zakarra,

zuzena eta formalegia  
zure pekatu bakarra.  
Beste askori begiratuta  
egin daiteke negarra,  
betiko iñor galdu ez dedin  
badago zure bearra!

7 Txit pozik bizi ziñan emazte  
ta lau semeren onduan,  
erabateko zorionikan  
ez da, ordea, munduan.  
MAITE, zuk, ainbat maite zenduna  
daukazulako goguan,  
baiña sinistu, zuri begira,  
egongo dala zeruan.

# Ortiz eta Berrio

---

**B**AKOITZAK bere gustoak eta griñak izaten ditugu, alperrik da, eta antxe aurkitzen degu gure gozamina. Baiña badira arrixku aundiko afizioak, eta zenbat eta arrixku geiago ura ta naiago, orduan eta gustorago, zenbait, itxura danez.

Mendi-gaillur beldurgarri oietakoak igotzea zan Erramun Ortiz eta Patxi Berrio´k zuten zaletasuna.

Oitura eta esperientzia izanagatik ekintza oietan, deskuidatu egin ziran, ezbearra izan zuten Asturias´ko Naranjo de Bulnes mendian eta antxe bizia galdu biak, 1969´ko neguan.

Ortiz ez, baiña Berrio oso ezaguna nuan eta, asko naigabetu nindun bere eriotzak.

Orduan ere zerbait egin nai eta:

Ain berri kezkatia  
asirik zabaltzen,  
bereala jendea  
asi zan kezkatzen:  
“Mendira joan ziranak  
ez dira etortzen...!”,  
gauz onik ez genduan  
iñork esperatzen

2 Geroztik erne zeuden  
begi-belarriak,  
noiz entzungo, beti zai,  
albiste berriak.  
Etzaizkigun iristen  
gero ta obiak,  
azkenekoak berriz  
txit penagarriak.

3 Jarritako plazoak  
bete ziranean:  
"Aiek ez datoz eta  
goazen zuzenean!"  
Ala asiak ziran  
gau ta egun lanean,  
eta illak topatu  
biak azkenean.

4 Aurkitu zituzten da  
gero komeriak!  
Inguratu eziñik  
dira ibilliak  
Alako parajetan  
zeuden eroriak,  
etziran ez makalak  
aien baloriak!

5 Zergatik izandu da  
oien eriotza?  
Zerk gelditu diote  
betiko biotza?  
Ezbearra batetik  
bestetikan otza,  
nortanai ere beintzat  
erremate motza!



- 6 Erramun Ortiz eta  
Patziku Berrio  
jatorrak izatez da  
askotxo balio.  
Naigabetuak gaude  
au dala medio,  
Gipuzkoa guziak  
negarra dario.
- 7 Mendi tontorrak izan  
zuen gogozkuak,  
ez zinduzten beldurtzen  
iñoiz arrixkuak,  
Eta naiz igo arren  
orain artekuak,  
geiago ez nai, nonbait,  
gure Jangoikuak.
- 8 Iñork egin ez duna  
egin nai zenduten  
beste pentsamenturik  
zuek ez zenduten.  
Zoriona an zala  
uste al zenduten?  
Aurki dezazutela  
beste toki baten.
- 9 Arkaitz beldurgarria  
Naranjo de Bulnes,  
mendizale guztiek  
esaten dutenez  
Eskarmenta nai dunak  
orain badu zeñez:  
udaran joan beti,  
neguan bein ere ez.

# Minbizia

---

**B**ERTSO auek jarri nituanetik, 1970´tik, gaur egunera, erruz aurreratu da gaitz beldurgarri oni buruz. Orduan izena esatea ere ia ez giñan ausartzen; itzegitea, berriz, zer esanik ez. Minbizia eta eriotza kasik eskutik lotuta ikusten genituan.

Gaur, zorionez, beldur aundia badiogu ere, normaltasunez itzegiten da. Erabat menderatzeko asko falta da baiña, ez da sendatu eziñezko gaitza; sendakorra baizik kasu askotan beintzat.


Urte artan gure familiko etxe batetik, bi aizpa eraman zituan gaitz maltzurak, gorriak ikusi ondoren.

Gaia ez oso alai dalako baiña, nerretzat balio izan zuan bertsoak jartzeko; eta ala bearrez, lenengo saria eman zidaten 1971´ko “Xenpelar” Sarian.

Praxial Nola edo ala bukatu bear  
mundu ontako bizitza,  
jaio giñanok or degulako  
ain beltz zaigun eriotza.  
Nekez da ona izatea nai  
orren atzetik gabiltza,  
baina Jaunaren esku dago-ta  
berea da azken itza.

- 2 Naiz garraztasun asko izanik  
berez il bear bakarrak,  
ori gogoan degula bizi  
gera emen mundutarrak.  
Gazteak noiznai, ta eskaporik  
ortik ez daukate zaarrak,  
ikaratutzen gaituana da  
ainbat sufritu bearrak.
- 3 Ia inola ezin igaro  
degu oraintxe egunik,  
belarritara iritxi gabe  
MINBIZIA´ren izenik,  
eta bai al da entzundakoan  
dardar egiten ez dunik?  
Geien kezkatzen gaituan gaitza  
dala esango nuke nik.
- 4 Aitatu utsak sortzen bait digu  
otzikara gorputzean,  
ortik pentsatu zer izango dan  
guregana etortzean.  
Zoritxarrean alakorikan  
gertatutzen dan etxean,  
pixkabateko irabaziak  
laister dituzte utsean.
- 5 Aalegin danak egin ondoren  
lortzen danean, gaitzerdi,  
sendatzen danak badualako  
berekin zerbait alderdi.  
Baiña gaitz onek jotzen duanak  
izanik ainbat pikardi  
erremedioik ez da alperrik  
bai diru ta bai izerdi.

- 6 Sendagillea asten danean  
ezer esan nai ezikan,  
galdetu eta: “geronek ziur  
ez dakigu oraindikan”.  
Obe bearrez egingo dute,  
nik ez dakit zergatikan,  
dakitena da andik aurrera  
ez dala izaten onikan.
- 7 Munduan diran jakintsu trebe  
ospetsu eta aundiñak,  
ondo dakigu ari dirala  
urtu bearrean muiñak.  
Sendagaienbat asmatu nairik  
sendatzeko bizi-miñak,  
baiña ez beti egi biurtzen  
gizonaren alegiñak.
- 8 Aurrera erruz egin dutela,  
ez dago esan bearrik,  
artu dituzten neke ta lanak  
danak ez dira alperrik.  
Jakintsu oien buruan dago  
pentsamentu au bakarrik:  
egun batean lortuko dala  
ez bada ezer okerrik.
- 9 Ojala gutxi faltako balitz  
egun ori irixteko,  
bearrean da estu daudenak  
batez ere lasaitzeko,  
gaitzaren mende aurkitzen dana  
zuzenean sendatzeko,  
eta sanoak, kezkarik gabe,  
lasaiago bizitzeko.



- 10 Erremeioa nun billa leiken  
ain gaiztoa da asmatzen,  
izan leikenik ere askotan  
ez bait zaigu iruditzen.  
Nere buruak une onetan  
orra zer duan galdetzen:  
orren kontrako belarrrik iñon  
ia ez al dan jaiotzen?
- 11 Iñork ez zaitu begiz ikusten  
eta dirudi gezurra,  
ain ikusgaitza izanik nolaz  
zu ainbateko maltzurra?  
Zuretzat txarrik ezer ez da ta  
zorrotza dezu muturra,  
txitxi xamurra bezela jaten  
dezu mami ta ezurra.
- 12 Entzun izan det sortzez zaudela  
gorputzaren barrenean  
lotan bazeunde bezela agertzen  
zaitugula aurrenean.  
Baiña ez zera zintzo ibiltzen  
beti gure esanean,  
esnatu eta asten bait zera  
gaitz egiten zuzenean.
- 13 Zertan ez dezu lotan irauten  
gu bizi geran artean?  
Ez al dakizu esna egoterik  
ez daukagula batean?  
Gero zuretzat izango gera  
emengoa egitean,  
bien bitarte utzi zaiguzu,  
xomorro, arren, pakean!

14 Konturatzen naiz au izan dala  
amets bat balitz bezela,  
eta parrezka egon daiteke  
gure xomorro txepela.  
Esanez: "Oiek uste al dute  
orren txoroa naizela?  
Janari otzik ez zait gustatzen,  
naiago det jan epela".

# Batzuek geiegi eta besteak ezer ez

---

**O**RAIN ia ogeitamar urte jarriak dira, 1968'an ain zuzen. Gizona aspaldi iritxi zan illargira, eta urrutirago ere denbora asko baiño leen joango dira. Sinistu ezin ditezken moduko aurrerapenen jabe egin gera eta auskalo zer ikusteko gauden oraindik...

Eta zer? Gu bizi geran mundu ontan ezer aldatu al da? Egin daitekenik egiten al da, ainbat jende goseak eta sortu bear ez luketen alperrikako gudetan iñor il ez dadin? Orduko antzera edo okerrago ez al gabiltza?

Munduan bai omen da gizaki guztiontzat aiña janari eta aberastasun, ondo banatu ezkeru; baiña ori egiteko nor da kapaz?

Ainbat lezaketen lurralde aberats eta indartsuetik asi, bertako eta mundu guziko agintariekin jarraitu eta gu geurekin bukatuz, ez al gera ase-eziñak? Eta ez al degu guretzat zenbat eta geiago izan, orduan eta geiago nai izaten?

Ni neuk beintzat nere apalean, egiten dedan baiño geiago egin dezakedala aitortzeko ez dauka lotsik.

Doiñua: Ai gure antziñako...



- 1 Mundu zaar au daukagu  
ikusten degunez  
naikoa aldrebes,  
zuzentzeko, oraingoz,  
itxaropenik ez.  
Irudituaगतिक  
ederra itxurez,  
sakondu eta jarri  
gindezke negarrez:  
batzuek geiegi ta  
besteak ezer ez.
- 2 Amerika'k batetik,  
bestetik Rusia'k  
dira nagusiak,  
beren mende arturik  
lurralde guziak.  
Naikoa izan arren  
ez daude asiak,  
illargira joan nairik  
or dabilta biak,  
bitartean, lurrean,  
jendea gosiak.
- 3 Goi-alde ortan dabilz  
proban gogotikan,  
derrotxaturikan  
jakin nai nuke zenbat  
diru alperrikan.  
Emen ez balegoke  
dagon premirikan,  
ez liguke emango  
olako miñikan,  
bertan ez al daukate  
zeiñi emanikan?

4 Illargi'n eta Marte'n  
norbait bizi danik,  
ori dakianik,  
oraindik ez det uste  
iñor dagoenik.

Inguratuak dira  
zerbait jakin nairik,  
tresna baliotsuak  
aruntz bialdurik,  
bai ote dabilkite  
intentzio onik?

5 Egin dezagun kontu  
bizia badela  
lurrean bezela,  
eta beren atzetik  
auek dabiltzela.

Ezin pentsa an onik  
egingo dutela,  
beste aldera emen  
oituak daudela,  
kanpokoak naiago  
dituzte bestela.

6 Jainkoanak izanik  
bata ta bestea  
on da jakitea:

“ez duala iñor nai  
aaztuta uztea.

Duenak ez dunari  
zerbait ematea,  
maitasunaren bidez  
alkartzen astea,  
anai jatorren gisan  
bizi izatea”.

7 Asko lezakeana  
emale txarrena,  
beretzat nai dena;  
nola izan lezake  
olako barrena?  
Iñori ezin opa  
geiegi dutena,  
pentsatzen jarrita ere  
ez al da au pena?  
Goseak dagonari  
emaiok jatena!

8 Aurrerapenak dira  
bai bearrezkuak  
eta bidezkuak,  
baiña berekin ditu  
naiko arrixkuak.  
Onerako bezela  
dira txarrekuak,  
auetatikan asko  
alkar galtzekuak,  
sortuko ez balira  
obe alakuak.

9 Gure aitonek sarri  
esaten zutena,  
il ziran... ze pena!  
Baiña bada esan bat  
aaztuko ez zaitena.  
Eskolarik ez baiña  
aiek zekitena,  
denborak eman digu  
arrazoi onena:  
“Erne, aurrerapenak  
galduko du dena”.

10 Asko goseak iltzen,  
besteak gaxorik  
nolabait bizirik,  
ez bait dute ezagutu  
janari goxorik.  
Goseak badakigu  
ez dula txantxarik,  
bizitzeko bai ote  
daukate pozarik...  
Alakoari ezin  
eskatu pakerik.

11 Mixeri latza dago  
nazio frankotan  
nai baiño geiotan,  
besterik gabe aski  
jarritzeko sutan.  
Ogia eskeintzea  
obe alakotan,  
baiña ez dute ori  
egiten askotan,  
baizik armamentuak  
ipiñi eskutan.

12 Ezin bizia baiño  
lagun txarragorik  
ote da besterik?  
Asarretzeko bera  
naikoa bakarrik.  
Ala dagoenari  
ez eman armarik,  
ez bazaio egin nai  
iñori kalterik,  
bestela ez da faltako  
sekula gerrarik.

# Zaar-saridun batek esanak

---

**O**NEZKERO esango zenuten batek baiño geiagok: “Bertso umoretsuak eta alaiak ere izango dirala esaten dik eta emen ez dek azaltzen orrelakorik; zein baiño zein tristeagoak baizik”.

Ez dezute arrazoi faltik. Neroni ere ala moduz nenbillen, nonbait, eta ez zitzaidan besterik irteten. Baiña, pazientzi pixkat ar ezazute, mesedez, etorriko dira-ta.

Orain datozenak eske edo protesta bezela ar dai-tezke. Irurogeitamaikakoak dira eta gaur ere zaar-saridun edo jubilatatu zenbaiten diru etorria eskasa bada, garai artako askorena negar editeko modukoa zan.

Bati eta besteari entzuten nizkienak gogoan artuta jarriak dira. Eta urte artan “Xalbador” zanak irabazi zuan leenengo saria eta nik bigarrena.

Gogoan daukat, “Xalbador” zanak nola esan zidan: “Nik gizon zaharragoa zinela uste nuen”. Bertsoen izenburuari begiratuta, izan ere, errez pentsa litekeena da.

Gaur bai, zaar-saridunen artaldean sartuta nago; baiña orduan 37 urte nituan.

1 Lanean aritu naiz  
denbora luzian,  
berrogeitamar urte  
asirik bazian.  
Sasoi neukan artian  
ajolik etzian,  
poz bat ere baneukan  
nere biotzian  
ederki bizitzeko  
erretiratzian...


2 Garaiz asia nintzan  
langintza fuertian,  
amabost urte eskas  
nituan artian.  
Beti lana egin det  
lantegi batian  
uzteko edadia  
eldu bitartian,  
orain iritxi da ta  
neretzat kaltian.

3 Etziran olakoak  
nik neuzkan ustiak,  
menderatuta nauka  
naigabe tristiak.  
Lanean igaroaz  
luzaro astiak,  
pakean bizi giñan  
etxeko guztiak,  
orain ezin konpondu  
zaar eta gaztiak.

4 Igaroa izanik  
leen ainbeste neke,  
atseden paketsu bat  
orain bear nuke.  
Aurkitzen naizen eran  
ori ezin leike,  
lortu aal banezake  
nekearen truke,  
berriz lanean pozik  
asiko nintzake.

5 Zaar-saria omen da  
ematen dutena,  
oso izen ederra  
jarri diotena.  
Egun gutxi bear da  
gastatzeko dena,  
gero noiz iritxiko  
illaren azkena,  
au al zan azkenean  
merezi nuena?

6 Bakarrik banintz utsa  
zerbait moldatzeko,  
baiña bagera iru  
andik mantentzeko.  
Jakiñik asko bear  
dala bizitzeko,  
ia ze karga geran  
etxe koentzako,  
leenago eziñean  
dabiltzanentzako.





7 Beste batzuek berriz,  
ain sari bapauk,  
neke gutxiagokin  
dituzte lortuak.  
Guk lana egin eta  
aiek merituak,  
derrior bear dute  
urri geldituak,  
batzuntzako badira  
besteei kenduak.

8 Leen nola edo ala  
erremediatzen,  
orain, berriz, iñola  
ez diot aurkitzen.  
Diru utsez bizitza  
ez degu osatzen,  
baiña degun artean  
obeto konpontzen,  
gabe da zailla emen  
pakean bizitzen.

9 Nortanai ez datorkit  
alderdi makala,  
gorputzean ximurtu  
bear zait azala.  
Leen irabaziekin  
biziko nintzala,  
norbaiteren ustea  
izango zan ala,  
lendabiziko berak  
proatu dezala!

10 Jauna'ri esker nago  
sano ustekua,  
ezer bada auxe da  
estimatzekua.  
Apetitua daukat  
leengo modukua,  
asko bear da ezin  
sortu jatekua,  
errejimena daukat  
bete-betekua!

11 Eztabaida guztiak  
ortatik datozte,  
gazteak arrazoia  
dutela nik uste.  
Konprenditu bearra  
daukagu ainbeste,  
goitik legeak ala  
jartzen badituzte,  
kulpa guztiak eurek  
izango dituzte.

12 Zenbait ametsa egin  
ez banu naiago,  
onela bizitzerik  
luzaro ez dago.  
Berez gure azkena  
urrean badago,  
iritxiko ote dan  
beldurtuta nago  
bear lukean baiño  
ondotxoz leenago.

# Gure baserriak

---

**S**ORTZEZ baserritarra naizenez, eta, naiz nere jaiotetxea arrapatu ez, ulertu eziñik egoten nintzan, goizetik gauera, esate baterako, zergatik eta zertarako bota zituzten ainbat baserri. Zertarako laister jakin genduan: “Urbanizatu” eta etxe berriak egi-teko. Zergatik? Beste galdera au zan nere erantzuna: Zergatik ez dute beste toki bat aukeratu ortarako?

Asko naigabetu nindun gertakizun arek. Izan ere, guretik arrikada bat bide baiño askoz geiago ez dago ori gertatu zan tokira. Auzo ta inguru guztiak artu zuan min; eta guretzat mingarria izan bazan, zer etzan izango baserri aietan bertan bizi ziranentzat? Izugarria dudarik gabe; oso une txarrak paseak baziran eta geroztik onik izan gabeak ere bai.

Orduan ere nola egon ni, bertsoak jarri gabe? Jarri nituan, 1969'an ain zuzen, eta Basarri'ri bidali, beti bezela. Basarri'k, berriz, eguerdiko saioetako batean kantatu egin zituan, nonbait, irratiz. Nik ez nituan entzun.

Garaiak ere alakoak eta, dirudianez, entzun zituan norbaiti etzioten batere grazirik egin eta zuzenean irratira deitu: “ea zeñenak ziran eta zer esaten ari zan bai al zekien eta abar”

Ez nuan jakin nor zan eta nundik deitu zioten. Basarri'k zer erantzun zion ere ez; baiña asmatzen etzuan denbora asko pasako.

Artan bukatu zan auzia ez genduan geiago ino-  
lako eragozpenik izan. Bertsoak, ordea, 1976'rarte  
etziran argitaratu.

Doiñua: "Iparragirre abilla dela..."

- 1 Pizti gaiztoak txitak kolkari  
kentzen dizkion antzera,  
euskal erriei baserri zaarrak  
ez al dijoaz kentzera?  
Bat bezela emeretzi  
berdin botata utzi,  
a zer nolako galera!  
Era onetan baserri gabe  
aurki geldituko gera
- 2 "Tunitz-Berri" bat, "Zaarra" bestea,  
berdin bi "Baratzategi",  
bi "Baso-Txiki", "Sagasti-Eder",  
"Lizardi" ta "Sagastegi".  
"Txibili-Aundi", "Txiki",  
"Igola" ta "Otxoki",  
"Arruas" ta "Etxeberri",  
"Arjel-Aundia", "Arjel-Txikia",  
"Fabrika" ta "Txiustegi".
- 3 Orra emeretzi baserri zaarrei  
betiko itxi ateak,  
nolatan neurtu orrek berekin  
ekarri ditun kalteak?  
Zaarrei bizia moztu,  
gazteak ezin poztu,  
alperrik zuen eskeak;  
indarran aurka ez du balio  
arrazoiakin joateak.

4 Gautik goizera kendu dizute  
zuen etxeko itzala  
pentsatzen degu gauza oberik  
zuentzat ezer etzala.

Kalera joan bear,  
egiñagatik negar,  
orain zoazte kartzela,  
zeruetatik infernutara  
sartzea balitz bezela.

5 Kale-etxean biziagatik  
gera baserrin aziak,  
beste edozein tokitan bezin  
zintzo ta zuzen eziak.

Izan ezkerera era,  
sarri egoten gera  
aruntz begira jarriak,  
aurretik kentzen badizkigute  
nola etsi gure begiak?

6 Baratz ederrak ziran tokian  
etxe aundiak zutitzen,  
eskatu baiño geiago eman  
oi zuten lurra zapaltzen.

Ikusirikan dena,  
alako ondamera,  
ez da erreza ixiltzen,  
kondenatzeko mintza nai ta ere  
ez det itzikan aurkitzen.

7 Zelai , soro ta baratz, sagasti  
fruta aukera guzita,  
ederrenak zein ziran esaten  
ez da erreza asita.  
Apaintzen zituztenak,  
lagunikan onenak,  
beren eskutik utzita,  
aurki ikusi bear ditugu  
sasi zakarrez josita.

8 Baserri oiek aurkitzen ziran  
alako toki goxoan,  
Donostia'tik oso gertu ta  
guztiz toki erosoan.  
Intxaurrondo, Errera  
Egia'tik Altza'ra  
artean dagon kaskoan,  
beste bazter bat obeagorik  
ez dakit ote dagoan.

9 Urruti eta etorkizunik  
ez daukatenak ustutzen,  
eroso eta gertu daudenak  
derrigorrean botatzen.  
Utsik dauden tokira  
zergatikan ez dira,  
etxegilleak bidaltzen?  
Ondo daudenei utzi pakean  
dauden tokian bizitzen.

10 Zenbatsu urte ote zituzten  
baserri oiek munduan,  
gure aitonen aitonek ere  
ez izateko goguan?  
Ain zaarrak izanikan,  
beste estalperikan,  
etzan izango orduan,  
zergatikan ez errespetatu  
merezi duten moduan?

11 Baserri zabal, eder, zuriak,  
Euskalerra'ko pitxiak,  
badirudite dirala noizpait  
zeruetatik jetxiak.  
Lurrik ederrenean  
or zeundeten gainean  
apaindutzeko utziak,  
uxa ditzagun galdu naiean  
dabiltzan pizti guztiak.

# Urumea ibaia

---

**G**OIZEAN jeiki eta ia begiak zabaldu bezein pronto ikus dezaket Urumea ibaia. Gaur, ondo ez, baiña osasunez edo garbitasunez, obeto dagoela ezin ukatu. Danentzat gaizki datorrenik ez omen da eta, papelera, fabrika eta abar gutxitzea ondo etorri zaie ibaiei; Urumea'ri ere bai dudarik gabe. Bestalde, garbitasun neurriak ere ondo etorri zaizkio.

Irurogeitamabira, bertsoak jarri nizkion urtera, atzera pausoa emanaz, ordea, zer zan ura? Nazka emateko egoeran zegoan. Nik, esan daiteke, iru egoratan ezagutu dudala: Emakumeek bertan gobara garbitzen zuten garaia, erabat ustelduta egon zanekoa, eta orain, berriro, garbitzen edo itxuratzen ari danekoa. Oraindik badauka premi ederra eta ez da errez izango erabat garbitzea; baiña gustatuko litzaidake, mutikotan ezagutu nuan bezela, berriro ikustea.

I Aurrekaldean zauden ibaia  
zurekin nai det itzegin,  
Urumea da bere izena  
ez dakinak dezan jakin,  
Ikusi utsak zentzudunari  
eman bear lioke min,  
ainbat esanai daukazularik  
itz bat ere ezin egin,  
itza bazendu zuri entzuten  
gaur ez litzake atsegin.



- 2 Ibai maitea, iruditzen zait  
oso aserre zaudela,  
ez bait zaitugu errespetatu  
merezi zendun bezela.  
Inguratuta begiratu bat  
bota zaiogun bestela,  
maite zaitugun guztiok pentsa  
naigabetuak gaudela,  
nik ezagutu zindutanean  
etziñan beintzat orrela.
- 3 Ura da, berez, munduan izan  
leiken gauzik garbiena,  
eta URA zan zuk, Urumea,  
leen ekartzen zenduena.  
Jakin nai nuke nor izandu zan  
au erabaki zuena:  
zure gaiñera ixuritzea  
beste iñork nai ez duena,  
berez garbia biurtu arte  
zikinkerri aundiena.
- 4 Loikeri eta pozoiarekin  
iñola ezin bizi-ta,  
beti-betiko galdu zerala,  
ni beintzat nago etsita.  
Il ote zeran esango nuke  
zerbait esaten asita,  
daukazun ustel usaia eta  
kolorea ikusita,  
bizirik baldin bazaude ere  
aurrez lutoa jantzita.

- 5 Nun dira antziñan lur garbi artan  
zenitun angulatxuak?  
Nun dira aingira eder legunak,  
lupi ta amurrai goxuak?  
Azken aldera baziran gaitzak  
jotako korkoi batzuak,  
orain ez dago orrelakorik,  
denak il ziran gaxuak!  
Orretarako egin al zitun  
gauzak Jaun Guztiz Aaltsuak?
- 6 Mutil koskorak giñan garaiko  
gauzak zaizkit gogoratzen,  
obeak ala txarrago ziran  
ez naiz asiko juzkatzen.  
Amaika aldiz zure ertzean  
ibiltzen giñan jostatzen,  
gaur berriz iñoiz zure ondora  
bagera inguratutzen,  
bakardadea eta tristura  
besterik ez da somatzen.
- 7 Eskola ere gu joaten giñan  
ibai-ertzetik barrena,  
sartu baiño leen bertan igaroz  
aal zan denborik geiena.  
Irtendakoan berriro aruntz  
egiñaalean aurrena,  
alako zerbait bazuan, nonbait,  
beste ezerk etzuen, a,  
bera zan beintzat orduan gendun  
jolas-tokirik onena.

8 Aitona zanai entzuna da ta  
geroztik daukat goguan:  
“Baserrirako ura ibaitik  
guk eramaten genduan”.  
Orain bezela etxe barruan  
etzan izaten orduan;  
gizarajoa emen balego  
begira gure onduan,  
arriturikan esango luke:  
“Ez nago leengo munduan!”

9 Esaten ari naizen kontuak  
ez dira gaur goizekuak,  
baiña oraindik aurki litezke  
ala ibilitakuak.  
Neroni ere ikusia naiz,  
emen emakumezkuak,  
garbikiñikan gabe astinduz  
gogotik beren eskuak,  
ibai ontatik etxeratutzen  
gobara zuri askuak.

10 Mundu onetan aurrerapena  
bearrezkua da baiño,  
preziso al zan iritxitzea  
iritxi dan tokiraiño?  
Komeni zaigun ura egiñaz  
ajolakabetzeraiño,  
gizonak daukan ase-eziña  
etorri da ontaraiño:  
izadiaren edertasuna  
ezereztu arteraiño.

11 Nafarroa'ko partean jαιο  
eta zatoz Kantauri'a,  
bere ertzean ezker-eskubi  
Gipuzkoa'ko uria.  
Ikusitako denak diote,  
omen da "paregabia",  
ibaia, garbi bazeunde izan  
liteke askoz obia,  
gisa ortako uri-erdian  
ez bait zaude dotoria.

12 Entzun degunez asiak dira  
itzegiten garbitzeko,  
askoz leenago egin bear zan  
gauzak ondo izateko.  
Ez dakit zenbat denbora bear  
luken ori egiteko:  
antziñan ziñan bezin garbia  
berriro zu gelditzeko,  
baiña beldur naiz gure gogoa  
ez ote duten beteko.

# Nere kezka

---

**I**KASTOLAK sortu ziranetik asita, nere kezkarik aundienetako bat EUSKERA'ren egoera eta etorkizuna izan da.

Nere kezka eta ardura, bear bada, geiegizkoa izango zan; eta, askotan, neure buruari: "Ez adi ainbeste kezkatu, Joxe; saiatu aiz, eta egin ere bai egin dek zerbait bere alde, ete kontzientzia lasai edukitzeko moduan ago" esanagatik, asko sufritua naiz eta oraindik ere sufritzen jarraitzen det.

Ori asko ez dala, ez nuke ala nai, baiña zenbait unetan naiko ezkor ere sentitzen det nere burua, EUSKERA'ren etorkizunari dagokionez. Laister datorren bertso sailla da orren lekuko.

Erri bakoitzak bere izkuntza  
eta gurea EUSKERA,  
Euskalerria izeneko lur  
onetan bizi bait gera.  
Beste guztiengandik bereizten  
gaitun izkuntza da bera,  
paregabeko altxorra dala  
konturatutzen al gera?

2 Izkuntza aberats, gozo ta garbi  
baten jabeak izanik,  
arro egoteko ainbat motibo  
badaukagula uste nik.  
Baiña gauz gutxi dira EUSKERA'k  
ainbat kezkatzen nauenik,  
ez bait det uste gutako askok  
benetan maite degunik

3 Bularra eman ez ama gurea  
euskeraz zitzaigun mintza,  
ain maitekiro erakutsia  
aaztuta ez al gabiltza?  
Seme-alabon kontzientzia  
benetakoa balitza,  
Ama bezela maitatu bear  
genduke gure izkuntza.

4 Alde ortatik kontzientziko  
kargarik nigan ez dago,  
seme bezela Ama maitatu  
dudalakoan bait nago.  
Baiña erantzun eziñezkoa  
zaidan galdera or dago:  
EUSKERA ala AMA, bietan,  
zein maite dudan geiago?

5 Bearrezkoa dala pentsatuz  
izkuntza landu ere bai,  
gaur egun banaiz zerbait idatzi  
eta irakurtzeko gai.  
Nik errespeto aundia diot  
erabiltzeko nolanaiz,  
askotxo, berriz, zabarkeriaz  
galdu ta alare lasai.

- 6 Bada dionik: "gure izkuntza asko ari da indartzen",  
naiago nuke orrela balitz  
baiña etzait iruditzen.  
Nik esan bear banu dijoa  
narrasten eta gutxitzen,  
senti dedana esan bearrak  
ez nau gutxi naigabetzen.
- 7 EUSKERA'k ere, izkuntza danez,  
badu arau ta legerik,  
ez sartu, beraz, ez dagokion  
itz arrotz eta joskerik.  
Naiko aberats bada izatez  
ez du bear naasketarik,  
orrekin ez da egiten auldu  
eta narrastu besterik.
- 8 EUSKERA arloan gutxi dakina  
naizela edonork daki,  
baiña badakit zer dagon ondo,  
badakit zer dagon gaizki.  
Irakurri ta entzuten degu  
aldrebeskeri galanki,  
zenbait unetan naiago nuke  
dakidana ez baneki.
- 9 Bide onetik ez goazela  
nola ez eman tankera?  
Obe litzake aal dan azkarren  
egingo balitz aukera.  
Bestela gure izkuntzarentzat  
izugarrizko galera,  
gero berandu izan liteke,  
kontuak orain atera.

10 Askok esango dute, agian,  
gogor itzegin detela,  
arrazoi gabe kezkatu eta  
ezkor aurkitzen naizela.  
Zer egingo det nik arazoa  
ikusten badet orrela?  
Benetan diot: obe ez balira  
gauzak nik uste bezela.



# Gazte baten aitormenak

---

**B**ADA beste arazo bat, oraindik ere geiago kezkatzen nauena: lanik eza. Ez da txantxetako arazoa, batipat gazteentzat; eta, oraingoz, irtenbidea aurkitzen zailla benetan. Aspaldi samarreko kontua da, baiña gazte batekin itzegiteko aukera izan nuan eta ara, gutxi gora-beera, esan zizkidanak. Askotan arritu egiten gaitu zenbaiten jokabideak, baiña... entzun, entzun:

1 Gazte batekin itz-aspertu bat egin berria nauzute, agian, naiko arrigarria irudituko zaizute, Nik ez nuan beartu, bera bait zan ausartu, nork entzuna bear dute, esan zidanen berri guztiok laister jakingo dezute.

2 Askotan esan oi degu gazte denboran nola sufritu? Baiña guk uste baiño geiagok, naiz ala ez iruditu, Badituzte bai penak eta dituzten denak, barruan ezin kabitu, geientsuenak kontatu arte mutilla etzan lasaitu.

3 Jakin ezazu nagoela ni  
ogei urtetik pasia,  
eta ikasi nezakeena  
aspalditxo ikasia.  
Baiña nun dago lana?  
Bearrezkoa dana,  
nun dago irabazia?  
Orrela pasa bear al degu  
gure bizitza guzia?

4 Badakit batek baiño geiagok  
alpertzat artzen gaitula,  
eta, onenean, zuk ere gauza  
bera usteko dezula.  
Lana egin nai degu,  
kupirarik ez degu;  
dunak eman dezaigula,  
proatu gabe zer geran iñork  
ez du jakingo sekula.

5 Noiz arte ez dakit, baiña gaurdaiño  
bizi naiz gurasoekin,  
ai zer nolako etorkizuna  
daukaten aiek nerekin!  
Mantendu eta jantzi,  
naikoa pazientzi,  
gaurko bizimoduakin;  
nik bitartean irabaztea  
oraindik zer dan ez jakin.

6 Dirua ez det sekula ere  
itxu-itxuan gastatu,  
norberarena ez danarekin  
ezin daiteke jostatu.  
Zintzo ibili arren,  
poltsatik beti erren,  
eta ori naiz ez gustatu,  
aal dun guztia ematen dunai  
nola geiago eskatu?

7 Nere guraso maitagarriak  
ia eskolarik gabe,  
askoz leenago egiñak ziran  
beren buruaren jabe.  
Amalau urterekin,  
lanari zien ekin,  
naiz nik jakin aien doble,  
aiek orduan egin zutena  
egin banu askoz obe.

8 Era onetan ni neu bakarrik  
nagonik ezazu uste,  
baiña geienak ez dirudite  
daudenik ni bezin triste.  
Ez bait gera berdiñak,  
aiek buruko-miñak,  
bai igande ta bai aste,  
kentzeko beste erremedio  
batzuk billatzen dituzte.

9 Maite bat badet eta or nabil  
berarekin txoraturik,  
ezetzik ez dit esaten baiña,  
gau ta egun kezkatu rik.  
Ez baldin bada aspertzen,  
da beste bat billatzen,  
egoera ikusirik;  
bene-benetan maite nauela  
ortan ez dago dudarik.

10 Bizi-poz eta itxaropena  
dijoazkigu gain-beera,  
noiz arte iraun bear du onek?  
Ori da gure galdera.  
Konpon bedi leenbaitleen,  
berandutu baiño leen,  
oraindik zerbait bagera,  
bestela erdiak edo geienak  
betiko galduko gera.

# Munduratzera zoazen orri

---

**O**NOKO arazo onek ere kezka sortzen dit eta ez txikia: Alde bateko eta bestekoen seta eta egosgorkeria dala medio, pake-giroan bizi aal izateko konponbide bat lortzeko inor kapaz ez izateak. Ez dute nai, edo etzaie komeni, pentsa oi det askotan; borondaterik eza nabarmena bait da.

Bien bitartean, au dalako edo ori dalako, negarra eta sufrimentua ugari ainbat familitan.

Kezkaren eragiñez edo, bertso askotxo ditut jarriak gai oni buruz, baiña ezin ditzaket denak sartu, Betekada aundia emango lieke liburuari, batetik; eta, bestetik, aspergarri gertatuko litzake. Batzuk bai ordea:

Doiñua: Aizak i motell Maiñontzi...

I Okerren bat ez badezu,  
munduratzera zoaz zu,  
eta, jakiña, munduko berri  
ezer ez dakizu.  
Zerbait jakin nai badezu,  
orain entzun ezaidazu,  
gero, agian : "Arrazoi zendun  
esango didazu".

- 2 Makiña bat amets zoro  
egin dezu onezkero,  
ezin-obeia ametsa egi  
biurtu ezkerro.  
Naiz nik onena desero,  
ikusiko dezu gero,  
guztiak egi biurtutzerik  
etzazu espero.
- 3 Ez daukagu atsegiñik  
badago buruko-miñik,  
bekaizkeri ta gorrotoak gaur  
ez dute berdiñik.  
Orrela dala jakiñik,  
ezin ukatu egiñik:  
bixta ona ta askotan alkar  
ikusi eziñik.
- 4 Ez badago maitasunik,  
ezin izan zorionik,  
nik ez det uste zuri oraindik  
faltako zaizunik.  
Gerora ezin esan nik,  
berdin gerta daitekeenik,  
galtzeko ere ez bait det uste  
asko bear dunik.
- 5 "ASKATASUNA" deritza,  
eder askoa da itza,  
zer dan ikasi gabe aurrera  
dijoa bizitza.  
Galdezka asko gabilta:  
Nork ote du bere giltza?  
Duenik bada, ate giltzatu  
denak zabal bitza!

- 6 Nai dezuna izateko  
edo naia egiteko,  
oztopo eta traba ugari  
bada bitarteko.  
Bateko eta besteko,  
oso gutxitan aldeko,  
nai ori ere, agian, iñoiz  
ez dezu beteko.
- 7 Lautatik iru gezurra,  
ori da gauza ziurra,  
egia esan duanarentzat  
askotan "egurra".  
Nola ez izan beldurra,  
austeko bizkar-egurra?  
Ondo pentsatzen jarrita ere:  
au MUNDU maltzurra!
- 8 Ezer esaten ez asi,  
mutu egoten ikasi,  
naiz bidezkoak ez diran gauzak  
aurrean ikusi.  
Indarra beti nagusi,  
argatik ez du merezi;  
ta bitartean, gizarte ontan  
zenbat INJUZTIZI!
- 9 Gauzak orrela dirala  
eta naikoa ez dala,  
ezin ukatu pake bidetik  
urrun gabiltzala.  
Ixuri arren odola,  
biziak gutxi ajola,  
esan daiteke: alkar-iltzera  
jarriak gaudela.

10 Beste gauza bat berria,  
ez bakarrik etorria,  
DROGA da eta mendean artzen  
ari da ERRIA.  
Benetan kaltegarria,  
aurtxo errukigarria,  
galduko zaitu ez badiozu  
artzen neurria.

11 Aintzat artzen badituzu,  
zer pentsatu badaukazu,  
baikortasuna galtzeko naiko  
motibo or dezu.  
Laguntza bear badezu,  
nerekin konta ezazu,  
zer gerta ere, beti ondoan  
edukiko nauzu.

12 Aitortzea da samiña,  
naiz izan egi gordiña,  
tamala bait da MUNDU obe bat  
eskeiñi eziña.  
Ez dago erreza baiña,  
badaukagu zer egiña,  
obeagotzen egingo degu  
biok aalegiña.





# Arriak negar egin lezake

---

1 Gure aurrekoek pentsatu eta  
esaten zuten bezela:  
“Agintari ta politikoei  
errespeto ta itzala”.

Eta uste gendun, oien arten,  
gizon eskasik etzala,  
baiña badira eta aiengandik  
Jainkoak gorde gaitzala!

2 Lotsagarria da, izan ere,  
zenbait tiporen jarrera,  
besterenetik sakelak bete  
ori da ori “karrera”!  
Izugarriak egiñagatik,  
ukatu eta aurrera,  
arriak negar egin lezake  
pentsatzen jartzen bagera!

3 Ajolakabe biurtu oi da  
agintzen jartzen zaiguna,  
gañontzekoak or konpon bitez  
ta berak egin nai duna.  
Azken fiñean argi ta garbi  
au da esaten diguna:  
“Gure esana egin zazute,  
ez guk egiten deguna”.

- 4 Leenago ere denak etziran  
izango, ez, oso fiñak,  
tartean beti tokatzen dira  
faltso ta esku-zikiñak.  
Orain ugari eta eurenak  
lapurretarik aundiñak,  
dakizkigunak asko, ta zenbat  
ote dituzte egiñak...?
- 5 Agintari ta politikoak  
ola dabilzan bitarte,  
beste iñori kargu artzeko  
ze eskudibe daukate...?  
Ejenplo onak eman bear da  
bide onetik aparte,  
leen gogozkoak ez banituan,  
orain "kontentu" naukate!
- 6 Zerbaitegatik agintzen jarri  
arteko ainbat borroka,  
ori lortzea bait da leenengo,  
naiz eta garbi ez joka.  
Gero itxura asko, lan gutxi,  
beti alkarri mokoka,  
ta bitartean, "Viva la Pepa",  
oiek daukate "bikoka".
- 7 Danok daukagu ontzen premia,  
bai ango eta emengo,  
zuzen jokatzuz, gauzak argituz,  
agintzen dunak leenengo.  
Eta norbaitek entzungo balit  
auxe nioke esango:  
juztiziari gabe pakerik  
ez dala iñoiz izango.

8 Goiko ta beeko ea ikusten  
gaituzten egun batian,  
eginkizunak zintzo betetzen  
bakoitza bere tokian.  
Berdin pentsatu ez arren gure  
artean, beintzat, pakian,  
diru geiegi ez bada ere,  
danok zorion betian.

# Egoerak kezkatuak

---

1 Gure arteko artu-emanak  
konturatutzen bagera,  
azken bolada ontan ez dute  
batere egin onera.  
Inkurria indarra artzen  
egunetik-egunera;  
eta iritxi nai ez badegu  
erabat aserretzera,  
nik ez dakit zer, baiña zeozer  
egin bearrean gera.

2 Anai arteko inkurria  
emen daukagun txarrena,  
eta ori da, une onetan,  
geien kezketzen nauena.  
Bizi izateko poza galdu ta,  
tristerik daukat barrena,  
nere iritiz auxe litzake  
egin daitekeen onena:  
eskua eman eta pakeak  
egin aal dan azkarrena.

- 3 Pentsa dezagun gizatxartuta  
ez goazela iñora,  
gure barruko zitalkeriak  
bota ditzagun kanpora.  
Borondaterik onenarekin  
bildu alkarren ondora,  
itzegin eta entzunez sartu,  
bein, pakearen ildora,  
leenbaitleen egin eta ez galdu  
alperrik ainbat denbora.
- 4 Emen ez dira gauzak egiten  
guk nai gendukeen bezela,  
pentsatzen degu batzuk dexente  
obegotu litezkela.  
Eta ez dago dudarik ortan  
saia bear luketela;  
utsegiteak nork salatua  
ez da faltako bestela,  
eta ezin da esan askotan  
arrazoirik ez dutela.
- 5 Milla zatitan banatu giñan  
ezertan asi orduko,  
eta okerrena: ez gera berriz  
santa sekulan batuko.  
Iraiñak-irain, utsa ukabillik  
ez bagenu dantzatuko;  
baiña asi gera alkarri nola  
aurpegia puskatuko:  
gu mutur-joka ikusi eta  
ez dira gutxi poztuko!

- 6 Gure artean zergatik sortzen  
degu ainbat tira-bira?  
Madrid aldean, guri begira,  
parrezka egongo dira.  
Esango dute: "Dijoazela  
zakurraren ipurdira;  
guretzat obe litzake iñoiz  
konponduko ez balira,  
ea orrela pake-pakean  
uzten diguten sikira!"
- 7 Eta gaiñera esango dute  
arrokeriaz beterik:  
"Gu gera agintzen degunak eta  
ez dago beste legerik.  
Zuek zintzoak izan zaitezte  
ez egin gaiztekeririk".  
Baiña agintzen ez bada jartzen  
agintari fiñagorik,  
penagarria dan arren, iñoiz  
ez da aldatuko girorik.
- 8 Diruagatik edozer gauza  
egiten duten gizonak,  
itxura danez beraiantzako  
dira kargurik onenak.  
Oietakoak askotxo, berriz,  
orain agintzen daudenak;  
eta ain dira gauza gogorrak  
oiek egin dituztenak,  
lotsik balute begi bixtatik  
joan bear lukete denak.

9 Aspaldi ari dira esaten:  
"Indarkeria uzteko",  
ta eurak ainbat ustelkeria,  
gezur da ezegiteko.  
Alproja jende orrentzat ere  
badet zerbait esateko:  
konforme baiña, gauzak zuzentzen  
euren etxetik asteko,  
eta, mesedez, suari indar  
geiago ez emateko.

10 Pake-zalea naiz betidanik  
garbi utzi nai det ori,  
orain artean inkurriorik  
ez diot izan iñori.  
Ango ta emengo epaitutzeko  
garaian berdin zait neri:  
neretzat beltza dana beltza da  
eta zuria da zuri;  
nik uste aalegin bat egitea  
tokatzen zaigula guri.

Konturatuko ziñanez, azkeneko bi bertso-saillak  
ez dira aspaldikoak, berri xamarrak baizik. Gaurko-  
tasuna nabari daiteke beraietan.



# Txakurra mintzo

---

**A**NIMALIRIK maiteena, gizonaren lagunik onena, etxe zaitzalle zintzoa eta ez dakit zer geiago dan txakurrak, esames ugari sortzen du bazterretan. Zerbitzua egiten digunean edo probetxua ateratzen diogunean oso ona, eta gañontzean, esae-rak dion antzera: “Txakurrari baiño kaso geiago ez”. Pertsonak bezin ondo zainduta daudenak ez dira gutxi, baiña beste zenbait...? Nun dira txakurraren eskubideak? Entzun dezaiozun:

- 1 Ondo pentsatzen jartzen bagera zer da gure izakera?  
Kulpa aundirik gabe gorriak ikusteko jaio gera.  
Orain edonor mintza daiteke orra etorri aukera,  
zuek bezela naiz ez itzegin,  
badegu gure izkera.
- 2 Txakur jaioak gera ta ala izanez nai degu bizi,  
begien bixtan, ordea, askok ezin gaituzte ikusi.  
Atzekaldetik egiten degun ori ain zaie itxusi,  
baiña egiten ez dunik iñor oraindik ez det ikusi!

- 3 Ain da gauz zaarra eta orrela  
egin oi da orain arte,  
utsa litzake gañontzekoek  
deus egingo ez balute,  
Aurrera ere pilla galantak  
egiten jarraiko dute,  
atzeko ate itxusi ori  
baldin ixten ez badute.
- 4 Jabeak: "Kontuz orrelakorik  
ez, gero, egin etxean",  
itxoiteko astia nola  
izan kaleratutzean?  
Etxean uzten ez badigute  
egin naia etortzean,  
kale guztiak zikindu bear  
irtenaldi bakoitzean.
- 5 Kalte aundia egingo degu  
orrela kastigatzeko;  
arrazoi ori naikoa al da  
neurri oiek artzeko?  
Zergatik ezin izan gaitzke  
beste guztien antzeko?  
Ainbeste beldur al daukazute  
zapatillak zikintzeko?
- 6 Estu ta larri ari zerala  
norbait etorriko zaizu,  
zer ari zeran galdetu gabe  
ostikoz ekingo dizu.  
Bearrezko ta atsegin dana  
egiterik ez badezu,  
beste gauzarik geientsuenak  
alper-arperrik dituzu.



*Esaten ari danaren irudi adierazgarria.*

- 7 Badakigu, bai, bearrak asko  
erakutsi izan dula,  
eta guk ere, berari esker,  
zerbait ikasi degula.  
Baiña ez gendun uste ontara  
iritxitzerik sekula,  
gure egin bear oik egitera  
ortzak bixtan ditugula!
- 8 Motiborikan asko badegu  
aserrea agertzeko,  
eta agiñak erakutsiaz  
eskarmentua sartzeko.  
Ez dezala iñork tentaziorik  
izan ostikoz jotzeko,  
eta alakorik balu, aurretik  
iru aldiz pentsatzeko.
- 9 Askok eduki nai gaitu beti  
etxean katez lotuta,  
ondasun denak egon ditezen  
aal dan ondoen zainduta.  
Orain artean ala egiten  
zaudete gaizki oituta  
gauzak aldatu ezean galdu  
liteke gure konduta!
- 10 Ala ta guztiz denak berdiñak  
diranik ezazu uste,  
alde daudenak izango dira  
aurka daudenak ainbeste.  
Danetik dago: ezkon, ezkongai,  
senarra eta emazte,  
beuren arteko edozein baiño  
geiago maite gaituzte.

# Udaberria

---

**U**DABERRIARI buruz, noizpait, zerbait idatzi, abestu edo esan ez duanik bai ote? Zuk ez dezula orrelako ezer egin... Maitemindu edo ezkondu ere ez? Polita dala esan...? Ez? Ez det sinisten.

Nik, egin, ezer askorik ez, baiña esan bai:

1 Negu beltzaren ondoren orra  
Udaberria etorri,  
esaten dute: zu zaitugula  
maitasunaren iturri.  
Baiña jakin nai nuke zergatik  
gabiltzan orren biurri?  
Gorroto eta setaz gaiñezka  
eta maitasunez urri.

2 Udaberria, zure zai nengon  
itxaropenez beterik,  
baiña ingurura begiratuta  
sarri jartzen naiz tristerik.  
Zer dala eta ez dago emen  
zoriontsu izaterik?  
Ez al diogu zabaldu bear  
maitasunari aterik?

- 3 Ala ta guztiz etsipenean  
ezin gaitezke erori,  
ondo pentsatzen jarri ezker  
azkenekoa da ori.  
Denok alaitu nairik txoriak  
asiak dira kantari,  
bizi-poz pixkat ematearren  
bearrean dagonari.
- 4 Kanta, txoria, ez esna iñoiz  
ixilik egotekotan,  
egunsentian ekin zaiozu  
naiz eta gu egon lotan.  
Auxe eskatu nai nizuke nik  
zeozer eskatzekotan:  
ni esnatzean, zu aritzea  
kantari zuaitz orretan.
- 5 Esnatu eta lenengo zure  
kanta entzuten badet nik,  
iruditzen zait ez dala iñor  
zorioneko ez danik.  
Nainuke baiña, nik ez det kantuz  
erantzuteko almenik,  
ala ta guztiz ez det izaten  
asi bitarteko onik.
- 6 Aiton-amonek pasa ondoren  
negua gaxo ta miñez,  
suspertu eta jarri zaizkigu  
etxean egon eziñez.  
Babes-tokian eguzkia artuz  
egonaldiak egiñez,  
“negua, beintzat, bota degu ta  
seguru gera” esanez.

- 7 Gaztetxoengan maitasun sua  
Udaberrian pizten da,  
su orrek zenbat irauten duan  
geroago jakiten da.  
Ala ta guztiz guretzat oso  
atsegiña izaten da,  
neska-mutillak begiztatzea  
alkarri esku emanda.
- 8 Landare eta zuaitzak ere  
ikus daitezke aldatzen,  
larrugorrian egonak orain  
jantzi apaiñez estaltzen.  
Negu gogorrek zapuztutako  
soro-zelaiak berritzen,  
eta lurpean gordeta zeuden  
azi txikiak ernetzen.
- 9 Dana dala nork ez du izaten  
itxaropen garai ontan?  
Gau eta egun murgiltzen gera  
guztiok amets gozotan.  
Bakoitza bere gogo ta naiak  
egiztatzeko asmotan,  
eta zergatik ez, ni bezela,  
kantari edo bertsotan?

# Udazkena

---

**U**RTEARO au ere ez da txarra. Udaberria eta udazkena, ez nuke jakingo zein aukeratu, Ez daukagu, ordea, aukeratu bearrik; pazientzi apur batekin, bakoitza, bere garaian, zintzo etortzen da, eta joan ere bai. Gaiñera, zer ajola dio ondo joaten bada? Eta, udaberria baiño gutxiago izan ez dedin, bertsoak udazkenari ere:

Zergatik ziur ez dakit baiña,  
beti edo geienetan,  
sosegurikan ez det aurkitzen  
udazkeneko gauetan.  
Ego-aizea izan bear du  
errudun nere ustetan,  
lo gutxi eta jira-biraka  
ainbeste ordu luzetan,  
eta oera sartzean baiño  
nekatuago goizetan.

Baiña leioa zabaldu eta  
kanpora begiratzean,  
nekeak eta nagitasunak  
gelditzen dira atzean.  
Giroa, berriz, ain atsegiña  
dagola konturatzean,  
alako indar berri bat edo  
sentitzen det gorputzean,  
da irtenaldi bat egin gabe  
nola gelditu etxean...?



- 3 Zeru-aldea ez dago argi,  
tarteka zenbait ostarte,  
odei gorrixkek illuntzerako  
euria ote dakarte?  
Ez du egingo ego-aizeak  
agintzen duan bitarte,  
baretzen bada, ordea, ez da  
izango oso aparte,  
ez dezala egin, ni irten eta  
etxera itzuli arte.
- 4 Aldaketarik izan ezean  
au da goiz-giro epela,  
Eguzki-printzek badirudi gaur  
indar geiago dutela.  
Mendi-gallurrak bai garbi eta  
dizdiratsuak daudela!  
Ego-aizeak denak orraztu  
egin balitu bezela,  
ain txukun eta apaiñak ezin  
egon daitezke bestela.
- 5 Oiñak mugikor biurtzen zaizkit  
mendiruntz abiatzeko,  
oraindik griña faltarik beintzat  
ez daukate ibiltzeko.  
Leengo sasoia joana, ordea,  
gallurrera igotzeko,  
emen urteek agintzen dute  
eta ez da arritzeko,  
kargik onena bera dalako  
arroenak umiltzeko.

- 6 Sendagilleak: “Zuri etzaizu  
orain komeni malkarrik  
ibili baiña, berdiñak diran  
bide aietan bakarrik.  
Ori egiten baldin badezu,  
ez da izango okerrik”.  
Aolku oiek ez daude gaizki  
baiña neretzat alperrik,  
gauza ez danak, ez egiteko  
ez bait du esan bearrik.
- 7 Leenago berdin ibiltzen nintzan  
mendian igo naiz jetxi,  
orain ez gora eta ez beera,  
berdiñean ere gutxi.  
Gauzak onduko diranik ez det  
uste biar edo etzi;  
aal dana egiten saiatuko naiz  
eta ezin dana utzi,  
leen egindako aiek kontatuz  
obe izango det etsi.
- 8 Naiz ta nik orain, ala bearrez,  
gallurrik ezin gaintitu,  
mendi-magalak ere neretzat  
bere aukerak baditu.  
Bada begiak nun gozatu ta,  
pakea nola aurkitu;  
orra, adibidez, zuaizen leengo  
kolore ura aldatu,  
urre antzeko oial apaiñez  
norbaitek jantzi al ditu?

9 Udazkenari buruz nengoen  
mintzatzera beartua,  
urtearorik gogozkoena  
bezela daukat artua.  
Ustekabeen orra aurkitu  
berari estu lotua;  
ez pentsa danik nagoelako  
oraindik orren zaartua,  
baiña bai nere mundualdiko  
udazkenean sartua.

# Negua

---

**B**ELDURGARRIA da urtearo au, endemas eda-dean aurrera goazenontzat; zer esanik ez, zaar eta gaxorik daudenentzat. Udaberria noiz etorriko zai egoten bagera ere, negu tristea irixteko beldurrez. Etorriko ez balitz naiago. Gazteek, berriz, asko beintzat, alderantziz: neguko elurra nai jolase-ra joateko. Joan, nai badezute, baiña kontuz elurretako erori txarrekin; segundo batean egiten diran zauriak, sendatzen denbora asko bear dute-ta.

1 Ekaitz zitalak atea kax-kax jotzen du negu beltzean, ordu ta egun jakiñik ez du urte-garai au eltzean. Etor daiteke Abendua'n da berdin-berdin Ilbeltz'ean, bai gogor asko astindu ere uste gabe etortzean.

2 Ordun izotza, elur txingorra eta zer ez du egiten? Alkarrengandik oso gertuan ez ote dira izaten? Oien zai dauden asko ta askok ez dakit au badakiten: guri animo ta poz aundirik ez digutela ematen.



*UBEGI, Joxe'ren jaiotxea negu beltzeko egun batean.*

3 Esaera bat bada: "Elurrak  
ateak ixten ditula",  
eta nik uste errespetoa  
izan bear diogula.  
Baiña, gaur, ainbat ixtimazio  
etzun izango sekula,  
bera ikusi arteko onik  
badirudi ez degula.

4 Ekaitz-aldia datorrenean  
zer gertatzen dan ikusi,  
artzaia bere ardiak artu  
eta menditik igesi.  
Naiz askatasun osoan, antxe,  
askoz lasaiago bizi,  
artzaiarentzat ardi gaxoak  
babestea da lenbizi.

5 Piztiak ere zer janik gabe  
gelditzean badakizu:  
berez igeskor izanagatik,  
orduan ez ain betizu.  
Janari billa oso gertura  
inguratuko zaizkizu,  
aientzat ere goseak txantxik  
ez dula bixtan daukazu.

6 Txoriak dira leendabiziko  
antzematen diotenak,  
eta ekaitza badatorrela  
iragartzen digutenak.  
Beste paraje epelagora  
bidea artzen dutenak,  
baiña ez uste toki artara  
irixten diranik denak.

7 Pasatu bear duten bidea  
gertatzen zaie luzia,  
zeru-aldea lainoz beterik  
eta ezin ikusia.  
Izugarrizko otza batetik,  
bestetik, berriz, gosia,  
makiña batek bide erdian  
galtzen du bere bizia.

8 Landare eta zuaitzak ere  
ez ditu gutxi astintzen,  
naiz ta ekaitzak jo, ez bait dira  
beren tokitik mugitzen.  
Datorkiena datorkiela,  
antxe egon bear sufritzen,  
gogorrak gaizki ta aulik ia  
ez da bizirik gelditzen.

# Kukua noiz entzungo zai

---

**B**AT joan orduko bestea, bata bestearen atzetik datoz urtearoak, baiña, negua da, sarritan, luzatzen dana, urte garaiari kasorik egin gabe.

Martxo'ra iritxi gaitzke, adibidez, eta udaberriaren zantzurik ez oraindik. Orduan egiten da luzea negua.

Garaia baiño goizago asia bada, berriz, Kristo, guarda! Kukuaren kantua ez da nai orduko entzuten.

Zaartzen ari gera ta  
orain komeriak,  
nunai aberiak;  
gutxitu dira gure  
abilidadiak.  
Gaztetan izan arren  
gizon dotoriak,  
“artrosis” orrek egin  
dizkigu beriak,  
oraintxe ia-ia  
egin du guriak!



- 2 “Artrosis”a zaartrosis  
da nere ustetan,  
gaitza ezurretan,  
beso, gerri, bizkarra  
edo belaunetan.  
Zaartzera etortzen da  
eta ez gaztetan,  
ortatik ez da iltzen,  
ez egon kezketan,  
sufrituz, baiña bizi  
daiteke urtetan
- 3 “Artrosis” ez duanak  
erreuma berekin,  
naiko lan batekin,  
eta askotan biak  
datoz alkarrekin.  
Pastilla, belar eta  
indizioekin,  
ala ere sendatu  
ezin ezerekin,  
atarramentu onik  
ez dago gurekin.
- 4 Udan ain nonbait baiña,  
neguan sartuta,  
erdi maskalduta,  
trikuaren antzera  
otzak kuzkurtuta.  
Ori asko ez dala  
jenio-txartuta,  
etorkizuna dago  
aseguratuta,  
orrelako lagun bat  
ondoan artuta.

- 5 Zankoetatik motel  
gogortuak gerriz,  
osatuak nagiz,  
jan-edan asuntoan  
juxtu eta neurriz.  
Gero ta errejimen  
zorrotzago jarritz;  
guk gaztetan bezela  
ibili nai, berriz,  
ura ez da, ordea,  
etorriko berriz.
- 6 Udan ez gaitu gaitzak  
ainbeste penatzen,  
da ez naiz arritzen,  
beroak ainbat ezerk  
ez bait du laguntzen.  
Baiña negua baldin  
bazaigu luzatzen,  
otza bota eziñik  
or gera ibiltzen,  
kukua, nai orduko,  
etzaigu etortzen!
- 7 Kuku kantua ez da  
ain zoragarria,  
bai maitagarria,  
eta guretzat oso  
adierazgarria.  
Esaten du: "Iritxi  
da Udaberria",  
tristerik gaudenontzat  
txit alaigarria,  
argatik zera, beti,  
ongi-etorria.

8 Udaberriaren zai  
geunden gau ta egun,  
triste bezin illun,  
iritxi da ta a ze  
poza eman digun!  
Eguraldia onduz,  
eguzkia lagun,  
gure gaitzak zertxo bait  
arintzen dizkigun,  
da beste itxura bat  
ea artzen degun.

# Nere beste zaletasunak

---

**N**ERE zaletasun bakarra ez da bertsolaritza, baditut geiago ere; eta aien artean: mendia edo mendian ibiltzea. Une ontan asko gauza ez banaiz ere, iñolako arrokeririk gabe, baiña dexente ibilia naiz mendian.

Orduko kontuak dira orain datozenak:

## MENDIRATZEN NAIZENEAN

Doiñua: "Uso txuria..."

1 Era dedan bakoitzean,  
mendira noa goizean;  
egunsentia izaten da, nik  
aruntz bidea artzean.  
Gero etxera abiatzeko,  
bein eguzkia sartzean.

2 Atsegin zaizkit mendiak,  
berdin bere gauz guziak:  
erreka, zuaitz, belardi, garo,  
arkaitz sendo ta zuriak;  
batez ere, an, aurkitzen diran  
iturri eder garbiak.



*Emaztea eta lagunekin mendiko ibillaldi batean.*

- 3 Mendiko ibillaldia,  
oso mesedegarria,  
aietan zear arnasten bait da,  
oraindik, aize garbia;  
eta guretzat uraxe izan  
osasanaren erdia.
- 4 Uri ta erri azitzen,  
bazterrak jendez betetzen.  
Lasaitasuna maite degunok  
mendira gera igotzen,  
bakardadea ere ez bait da  
askotan gaizki etortzen.
- 5 Gaur egun bakartasuna,  
guri komeni zaiguna;  
baiña bizitza larri onetan  
nekez aurkitzen deguna,  
mendi-aldera balijoake  
alako zerbait nai duna.
- 6 Mendiratzen naizenean,  
poza nere barrenean;  
txori alaien abestitxoak  
entzuten ditudanean,  
neroni ere bertso-jario  
asten bait naiz zuzenean.
- 7 Ezagun ez-ezagunak,  
mendian gera lagunak,  
agur egiñaz, pozez eskeiñiz  
alkarri an ditugunak;  
toki guztitan nai nituzke nik  
alako laguntasunak.

8 Gure mendi-gallurretan,  
jator gabiltz geienetan,  
alaitasuna adieraziz  
oiu ta abestietan;  
euskeraren mendizaleak,  
nunai, bere ezpainenetan.

9 Ez da bide galazirik,  
ez dago argi gorririk.  
Nai dan aldera jo dezakegu  
laisterka edo geldirik;  
bertan egoten bagera ere  
batere ez dio ardurik.

10 Aundi, txiki, zaar da gazte,  
denok mendira zoazte.  
Arrixku gabe, bakoitzak aal dun  
maillan ibili zaitezte,  
zuen buruak gozatuko du  
kale-zuloan ainbeste.

# Maite ditzagun mendiak

---

**M**ENDIAN ibiltzeak, osasungarria izateaz gainera, baditu beste alderdi on eta aipagarri ugari.

Esate baterako, zenbait baserritarrekin berriketaldi bat egitea, neri beintzat, oso atsegin gertatzen zait.

Ez dakit zenbat denboran iraungo duan, sarritan ainbat iseka edo burla egiten zaion mendi ta baserri giroko izkera goxo ta jatorrak.

Baiña, laboratorio kutsuko euskera artifizial edo “estandarizatu” orrek irentsiko duala pentsatzeak, izugarrizko tristura sortzen dit.

Orregatik, aukera dudanean, mendi baserrieta-koekin itz-aspertu bat egitea, atsegiña bezin osasungarria zaidala iruditzen zait.

Kalean ezezik, mendian ere, txukun eta errespetoz ibili gaitezke, zenbaitek mendian nolanaibiltzea eta edozer gauza egitea libre dala uste badu ere. Eziketa arazoa da, dudarik gabe.

Eta azkenik, neguan batipat, oiñetako onak eta jantziz osatuta joatea etzaizu iñoiz damutuko; gutxien uste dan garaian eguraldia aldatu, edo ekaitza sortu eta giroa aldatu daiteke-eta.



Gerta daiteke eguzkia ta  
 gerta daiteke goibela.  
 ifar-aldeko aize otza ta  
 ego-aldeko epela.  
 Mendi-goietan, giroa, sarri,  
 izaten bait da orrela,  
 ala ta guztiz, esan bear det  
 pozik aurkitzen naizela,  
 an goitik dena nere mendean  
 egongo balitz bezela.

2 Izadiaren aunditasuna  
 berdingabea izanik,  
 bada, oraindik, merezi aiña  
 errespeto ez dionik.  
 Nik, berriz, nere begiei ezin  
 eman diet atsedunik,  
 ikusi edo naiz aztertzeke  
 ainbeste gauza egonik;  
 nai ainbat asti ez izatea  
 nik ez daukat beste penik.

3 Besteak-beste, zuaitzak dira  
 benetan maitagarriak,  
 izadiaren oiñarri eta  
 mendien apaingarriak.  
 Baiña etsaiak asko dira ta  
 ez kanpotik etorriak:  
 gizonok, sua, gaitzak eta abar  
 guztiak beldurgarriak;  
 zaintzen saiatuz, artu ditzagun  
 bear diran neurriak.

4 Zaar eta gazte, berdin gizona  
edo andrea bazera,  
zoaz mendira, egon, ibili  
nai badezu, jolastera.  
Aize garbi ta osasuntsua,  
bide batez arnastera;  
nolako pake-giroa dagon  
zeure begiz ikustera;  
ezagututa errespetatuz,  
maitatutzen ikastera.



*Koadrilla perretxiku-bilketa tajuzko baten ondoren.*

# Perretxikuen inguruan

**M**ENDIA eta perretxikuak aska eziñezko lotura dute. Kale eta plazetan ez da jaiotzen —oraindik beintzat— perretxikurik. Mendira joan bear da ikusi eta bilduko bada, bein, gu, lau senar-emazte zein baiño zein ezjakiñagoak, Lizarrusti gaiñera joan giñan bezela. Ara...! esan egin det nora joan giñan, tonto arraio onek...Benetako perretxikozaleak ez luke iñoiz esango. Ez guk ere gaur, baiña auek aspaldiko kontuak dira.

Bertsoak jartzeko modukoak ziran gure orduko ibillera aiek, baiña ez nuan jarri bertsorik; idatzi egin nuan:

*Biltzea, kasik, jatea baiño geiago gustatzen ziztaigularik, asko zala-ta, an joan giñan, esan bezela, lau senar-emazte, bada ezpada ere, dudakoak berezi genitzan, perretxiku-liburuak besapean artuta. Zesto eta poltsa faltik etzan, berriz, zer gerta ere.*

*Begiak luze-luze eginda asi giñan bazterrak miazten eta aurkitu ere bai perretxikuak. Tartean beti izaten da, norbait, besteak baiño geiago dakiala uste duan oietakoa, eta ari galdetzen genion onak ala txarrak ziran jakiteko. An etzan txarrak, denak onak. Guk txarrak geneuzkanak ere: "sartu-sartu poltsan, gero ikusiko ditugu-ta". Emakumeak ere etziran aserre... Ura poza gurea!*

Konturatu gabe joan zitzaizkigun orduak eta, nola-alakoekin, poltsak bete egin genituan.

Gosetu ere egin giñan eta zerbait artzera gertue-neko tabernara joan giñan. Perretxikuak bereizten zizkigun gidaria, ordea, etzegoan lasai eta, —ortik pentsa ze segurantz zi zeukan— tabernako nagusiak ondo ezagutzen zituala bazekian, nonbait, eta berari eskatu zion perretxikuak bereizi zitzaizkan.

Ala, mai gaiñean zabal-zabal eginda jarri genituan eta laister bukatu zuan egitekoa. Guk salda artu genduanerako operazioa eginda zegoan. Baiña, leen ainbeste poltsa baziran, gero, batean errez sartu ziran bereizitakoak.

Emakumeak, batipat, kopetillun: “Onak zirala ta, orain au...? Ez degu alperrik egin ainbeste lan...! Gidariari ekin zioten. Eta onek: ”Gure biziak arrixkuan jartzea baiño obe izango da, ezta? Jan-aldi ederra egiteko aiña badaramagu beintzat eta, ez da gutxi...”.

Ori esan zuanean konformatu ziraneko itxura egin zuten... ze erremedio! Ostatu edo tabernako nagusiari eskerrak eman eta etxeruntz abiatu giñan.

Bidean gentozela, noiz, nola jan eta nortzuk gonbidatu erabaki genduan. Amar bat lagun bilduta ere etzegoan lotsagarri gelditu beldurrik.

Busti xamarrak zeudela-ta, ganbaran maindire baten gaiñean jarriko zituala, pixkat leortu zitezenean, esan zuan batek. “Nere emazteak oso ondo maniatzen ditu gaiñera...”.

Biaramon gauean zan egitekoa perretxiku-jana. Baiña gau artan, ala bearrez, ego-aize zakar oieta-koa ibili zan gelditu gabe. Urrengo egunean, lanik geien garbitzeak eramaten zuala-ta, izendatu baiño ordubete leenago joan gintzaizkien laguntzera emaztea eta biok. Ordurako, lagunak, jetxiak zeuzkan perretxikuak ganbaratik.

Perretxikoak, aiek? Ezpal legorrak ziruditen! Bezperako erdia ere etziran. Emaztea, etxekoandrea,

berriz, txit urduri: “Zer eman bear diet nik etortzen diranei...? Besterik ezean, tortilla egin naita ere, aiek jaten dutenarekin... naiko arrautza baneuka sikira...” Arrautzakikoa egingo degu, emakumea; gure etxean ainbeste izango da”, esan nion nik.

Salto batean etxera etorri, izotzgaillua zabaldu eta ura ustegabekoa! Emazteak erositako etxeko txanpiñoi mordo bat aurkitu. Ez nintzan aserre!

Dozenerdi bat arrautzekin batera artuta, laister joan nintzan etorritako tokira. Ikusi nindutenean, ura ongietorria egin zidaten...! Zerua zabaldu zitzaien bat-patean.

Itxura gaiztoko perretxiku aiek, bere onera etor zitezen, eta garbitu aitzakiz, ur freskotan sartuta zeuzkaten. “Atera itzazute azkar, oiek, ortik; bestela ez dira jateko gauza izango-ta, eta egin ditzagun, leenbaitleen, egitekoak” esan nien.

Txanpiñoiak txiki-txiki egin eta diximulatzeko oi baiño tipula geiagorekin zartagian jarri genituan martxan eta, baita tortilla ederra egin ere, iñor etortzerako.

Apenas iñor konturatu zan, iñork etzuan itzik atera beintzat. Alderantziz: “Ezin obeak zeudela eta txaloak sukaldariari”.

Orain jakingo dute eta entzutekoak entzun bear-ko ditu norbaitek. Erantzunik etzaie faltako.

# Pelota euskal-jokoa

---

**P**ELOTA ere oso gogozkoa det. Txikitan edo gaztetan, orduan beste guztiak bezela, ibilia naiz pelotan; baiña frontoian baiño kasik geiago —ortarako aukera gutxi izaten genduan— baserri edo etxeetako orma zaarretan.

Pelotari izatea gustatuko zitzaidakean, baiña nai izatea bakarrik aski ez; doaiak ere bear dira eta nik izan ez. Zaletasuna edo afizioa, ordea, bai orain ere, eta jarraitzalle sutsua naizela esan bear.

Gipuzkoa'ko Euskal-Pelota Elkartearen urrezko eztaiak zirala-ta, 1975'an, Bertso-Paper Sariketa bat antolatu zuan Elkartek. Idatzita didali nituan batzuk eta 3'gn. saria eman zidaten. Auek dira bertsoak:

Guk, euskaldunok, ondasun aski  
badegu joku aldetik,  
mota askotan nabarmenduaz  
batzutan oso aurretik.  
Bat aukeratu bear banuke  
ditugunaren artetik,  
zalantzarikan gabe Pelota  
beste guztien gainetik.

- 2 Beraz, Pelota, gure jokutan  
nere iritziz leenengo,  
noiztikakoa danaren berri  
nik ez dizutet emango.  
Baiña gurea ez danik ori  
iñork ez dizu esango,  
garbiago ta euskaldunago  
ez da besterik izango.
- 3 Artzeko gauza giñanetikan,  
eskuan pelotarekin,  
lenen jolasak egin genitun  
alako zerbaiterekin.  
Artu ta utzi, edo boteaz,  
zoriontsu berarekin,  
berdin gertatzen dala uste det  
gaur eguneko aurrekin.
- 4 Geroxeago, etxe-jirako  
orma zaar da ezberdiñak,  
pelotaleku gisara, zenbait  
arrastotxoak egiñak.  
Antxe pelotan, doaiez kanpo,  
danok egin aalegiñak,  
ala asiak izandu dira  
gure txapeldun aundiñak.
- 5 Doai batzuek eman zizkigun  
Aalguztidunak danori,  
bere garaian, bere neurrian,  
esnatzeko bakoitzari.  
Baldin alkartzen bazaio griña  
berezko dan doaiari,  
bi gauza auek dituan ura  
izango da pelotari.



- 6 Bere gogozko jokia dunak  
badaki artzen benetan,  
eta artara joko du arek,  
era dun une danetan.  
Tokirik inon aurkitzen badu  
ingurutako plazetan,  
edo erriko kontzejupe ta  
elizako arkupetan.
- 7 Zuriz jantzita agertu arte,  
naiz leendik ala izanik,  
etzaio inoiz eman izandu  
pelotarien izenik.  
Euskalerrian ez da erririk  
ez aundi ta txikienik,  
mailla ortara iritxi ez dan  
semeren bat ez duanik.
- 8 Zer ikuskizun zoragarria  
pelotaleku batean,  
pelotariak zuriz jantzita  
aurrez-aurre ikustean!  
Ezker-eskubi pelota joaz  
aidean edo botean,  
tantoak bixtan apuntatuaz  
norbaitek utsegitean.
- 9 Bakarka izan edo binaka,  
jazkera berdiñekoak,  
nor-noren aurka dan bereizteko  
or dauzkate gerrikoak.  
Urdiña batzuk, besteak gorri,  
oso margo bizikoak,  
inork dudarik izango balu,  
ikusteko modukoak.

10 Pelota-joko onek baditu  
era bat baiño geiago,  
nai bada eskuz, pala edo zestoz  
remontea ere badago,  
Ori norberak aukeratzen du  
oietan zer dun naiago,  
neretzat eskuz jokatzan dana  
bezelakorik ez dago.

11 Era guztiak atsegin zaizkit,  
baiña nago kezkatuta,  
gazte jendea ikusten bait det  
pala eskuan artuta.  
Erramintetan eskua bera  
leenengo dala aaztuta,  
oiek gero zer egingo dute  
orain orrela oituta?

12 Txapeldun denak aipatutzea  
izango nuke luzeegi:  
nere txikitan Atano zan da  
gero, berriz, Gallastegi.  
Geroztik asko izandu dira,  
bakarren bat errezegi,  
orain dagona naparra da ta  
izenez da Erretegi.

# Julian, etzoazela oraindik!

**P**ELOTA eta pelotariak aipatu ezkerro, berriz, nere pelotaririk gustokoena eta begikoena dan Julian Retegi'ri buruz zerbait esan gabe nola gelditu!

Izan ere, 1997'ko Azaroaren 8'an lau t'erdi barruan Arretxe'ri irabazi zion partidua arrigarria izan zan, aaztu ezin oietakoa.

Bere 43 urterekin, daukan maixutasuna ikustekoa da; eta maixutasuna gauz bat da eta, sasoia? Nola eduki dezake olako sasoia, edade ortan? Ze kasta arraio degu erasundar au?

Amaikagarren txapela buruan jarri ziotenean, 1993'an, goian azaltzen dan izen-burua jarri nion nere idazlan bati "Julian, etzoazela oraindik!". Une ontan ere erregu bera egiten diot: "Jarrai, Julian, pelotazaleon gozamenerako!"

Au nion nere artikuloan, orain lau urte:

*Txapeldun izatera bein irixteko ere, pelotari ona bear du. Sei aldiz, Azkarate eta Retegi I bezela, berriz, zer esanik ez. Baiña amaika txapela, oraingoz, eskuratzeko...*

*Eziñezkoa danik ere ezin daiteke esan, Retegi II lekuko. Ala ta guztiz, ordea, berriro esanda, amaika*

aldiz garaille irtetea, ez da ez, txantxetako marka. Baliteke baiña, nik ez det espero beste iñor ezagutzerik.

Konparaketak egiten ain zaleak galararik, —ortarako leengoak eta oraingoak ezagutu eta alkar neurtu egin bearko lukete, eta ori eziñezkoa da— izango da esango duanik: “Olakok eta alakok arrapatu izan balute” eta abar. Nik, nere iritzi apalean, auxe diot: gerokoak-gero, gaur edo biar, pelotari onenen izenak aipatzerakoan, Julian Retegi, tartean ezezik, punta-puntan izango dala.

Bertsoak ere jarri nizkion orduan:

1 Gorputzez ez da oso aundia  
baiña pelotan trebea,  
punta-puntako kirolaria,  
doai askoren jabea:  
gerri biguna eta zankotan  
nagitasunik gabea;  
eskubia du ona benetan,  
ezkerra peregabea,  
eta urteak gogoan artuz  
sasoia ezin ohea.

2 Buru-azkarra ta saiatua  
emanez beti beria,  
jokatzen ari dan garaiean  
berriketarik gabia.  
Anima salbo eta barkatzen  
badit nere ausardia,  
pizti auekin konparatzen det  
Retegi pelotaria:  
ibiltzeko eran kattagorria,  
jakinduriz, azeria



*Retegi II, bakarka 11 txapela eta guztira 22 —azkenekoa, 43 urterekin, 1997'ko Abendua'ren 14'an Titin'en aurka lau l'erdi barruan— irabazitako pelotari paregabea.*

3 Amaika urtetan amar txapela  
irabazia aurrena,  
gero, bi urtez, utsegin arren  
aurten amaikagarrena.  
“Galartza baietz berriz txapeldun”  
askok esaten zutena,  
eta partaide guztietatik  
bera izanik zaarrena,  
oraingo onek egingo zion  
ilusiorik geiena.

4 Urteei iges egiterikan  
emen ez dago inondik,  
eta betiko ez dala inor  
ere badakigu leendik.  
Baiña Pelotak bear zaitu ta  
etzoazela oraindik!  
Maixuak ere asko ikasi  
bait lezake zuregandik;  
besterik gabe: eskerrak eta  
milla zorion emendik.

# “Topete” zanari

---

**P**ELOTARIAK aipatu ditut, bakar batzuk bederen, eta ondoren, gai onekin bukatzeko, il zan auzoko pelotazale bat aipatzera nator: Joxe Antonio San Martin “Topete” ain zuzen.

Nere aldean gaztea zan, baiña, ni ere pelotazalea naizela bazekienez, sarritan erabiltzen genituan Pelota munduko gaiak gure izketaldietan. Eskatzen aritu bearrik gabe ematen zizkidan Pelota’ri buruzko berriak eta aldizkariak. Baita zituan egitasmoak jakin arazi ere. Eta ez zituan gutxi.

Norbait zerbaiten eske joaten bazitzaion, etzuan eskutsik utziko. Estualdiren bat zanean ere, laguntzeko beti prest; ain zan borondate onekoa...

Orregatik, ainbeste zor baniola uste det eta tartetxo bat eskeiñi nai izan diot liburuan.

Pelota maite zuan benetan  
jarraituz oso aldetik,  
aurrek ikasi zezaten nai zun  
gauza guztien gaiñetik.  
Frutuak ere sortuko dira  
ondo egindako lanetik,  
jarraitzallerik izaten bada  
ark jarritako bidetik.

2 "Topete" joan zan gure artetik  
egun batetik bestera,  
baiña ara zer pentsatzen nagon  
eta noa esatera:  
Jaunak ez ote zuan eraman  
beraren aldamenara  
zeruan diran aingerutxoei  
pelotan erakustera?





# Errealari

---

**G**USTOKO gauza geiago baditut, eta azalduko dira oraindik, baiña beste gai batzutara pasa aurretik, esan futbola ere oso atsegin zaidala. Ez nintzake aspertuko ikusten, baiña, pakerik izango bada, badakizute...

Erreala'ren bazkidea izana naiz urte askotan. Beraz, urte onak eta txarrak, danetatik ezagutu ditut. Gaur ez, ez naiz bazkide eta ez naiz joaten Anoeta'ra, baiña telebistaz saiatzen naiz aal dudana ikusten.

Atzo, ain zuzen, garaipen sonatua lortu zuten Oviedo'n ; O-5 alajaiña!. Tajuz asi dirala dirudi eta ea denboraldi on bat burutzen duten.

Orain emezortzi urte, 1979'an, Erreala punta-puntan zebillen, eta txapeldun irteteko zorian zegoan garaian —eta atzerritarrik gabe— bertsoak jarri nizkion gure taldeari:

Ostikoketa edo futbola  
ez da euskaldun jokoa,  
baiña euskaldunen artean askok  
degu oso gogozkoa.  
Jokatzen ere euskaldunaren  
sona da aspaldikoa,  
gaur egun dagon taldea ere  
ez degu nolanaikoa!

2 Donosti'n dago talde bikain au,  
Erreala du izena,  
merezi du ta oraingo ontan  
goraldu asmoz naizena.  
Jakiñik talde au etxekoak  
dena osatzen dutena,  
esan daiteke bera degula  
gaur Españi'ko onena.

3 Bertako seme ta euskaldunak  
denak ez bada geienak,  
nunai ta beti abertzaleen  
kutsua daramatenak.  
Dirua baiño Aberri auxe  
maiteagoa dutenak,  
beste lurralde danen ispillu  
izan bear luketenak.

4 Gajate'rekin Kortabarria  
errespetoa jartzeko,  
Zelaieta ta Olaizola  
iñor ez inguratzeko.  
Oso abilla izan bear du  
aueri gola sartzeko,  
gero Arkonada or dago, berriz,  
atea zintzo zaitzeko.

5 Zamora, Diego ta Iriarte  
zail da oberik aurkitzen,  
iruren arte zelai erditik  
jokoa dute zuzentzen.  
Kontrarioak zaitu ezezik  
indartsu beti bultzatzen,  
sasoi betean daude ta oiek  
iñoiz ez dira nekatzen.

- 6 Aurrekaldeko irukotea  
auetzek osatzen dute,  
Satrustegi'kin Idigoras da  
Roberto Lopez Ufarte.  
Auek indarrez eta maliziz  
denak erotzen dituzte,  
golak sartzeko Satrustegi or  
beti erne daukazute.
- 7 Ordezko dauden oientzat ere  
badet zerbait esateko.  
bear danean jokatzeko prest  
beti gertu daudelako.  
Ez daude geldirik besteak baiño  
eskasago diralako,  
baizik taldea amaikarekin  
osatua dagolako.
- 8 Gidari eta erakusleak  
zer nolako merituak!  
Oiek bai ondo dakizkitela  
jokoaren sekretuak.  
Sendagille ta laguntzalleek  
dauzkate ondo miatuak,  
esku onetan daude mutillak  
eta or daude frutuak.
- 9 Zuzendariak, iñor bada-ta  
aipatu bearrekoak,  
nik esan bear banuke, gaurkoz,  
aldatu eziñezkoak.  
Oien ekintzak, ainbat urtetan,  
izanik ain zentzuzkoak,  
atzerritarrik ez degu bear,  
badauzkagu tajuzkoak.

10 Bazkide eta ikusle denak  
ezin, ba, utzi aaztuta,  
besteak-beste jolas orduan  
bearrezkoak dira-ta.  
Txalo beroak jo eten gabe  
orrek poztutzen ditu-ta;  
orra nik nere omena eskeiñi  
dena merezi dute-ta.

# Bein berrogei urtetik gorako kontuak

**N**ERE zaletasunak, oraingoz, alde batera utzi eta beste gai batzuk ikutu ditzagun.

Ain zaarra ere ez naiz, baiña orain berrogei urteko gizona oso gaztea iruditzen zait; aspaldi xamar paseak bait ditut.

Ni berrogeira iritxi nintzanean, ordea, goia jo eta gain beera asitzat jotzen nuan neure burua. Ajeak azaltzen eta onenak emana nengoala iruditzen.

Bertsoak jartzeko egokiera ona zalakoan, jarri egin nituan; eta "Xalbador" zanak, G.B., 1go "Xenpelar Saria" irabazi zuan, eta Inozentzio Olea adiskide legazpiarrak eta nik 2'gna; 1975'gn. urtea zala uste det.

Pentsamentu bat badet askoren artean, eta nola lasaitu esan bitartean? Nere iritziaren berri jakitean, ez ditezela izan iñoren kaltean.

2 Berdintasuna dago  
ortan guztiontzat,  
urteak berdin joaten  
dirala danontzat.  
Nik diotana artzen  
badezute ontzat,  
berrogei urte bete  
dituzutenentzat.

3 Neu ere muga ori  
pasea egonik,  
ezin esango degu  
zaartuak gaudenik.  
Baiña ez uste izan  
leengoak geranik,  
kontua neregandik  
ateratzen det nik.

4 Orain arte dotore  
ibiliak gera,  
ajolarikan gabe  
nai degun aldera.  
Besterik izango da  
emendik aurrera,  
kontuak ateratzen  
asten ez bagera.

5 Sasoi degun artean  
burua ariña,  
ez egiteko franko  
badegu egiña.  
Gureganatu zaigu  
ondoren jakiña,  
egindako okerrak  
zuzendu eziña.

- 6 Asiak bait ditugu  
ajeak azaltzen,  
utsa da ez badira  
gerora ugaltzen.  
Gure edertasunak  
badijoaz galtzen,  
traste zaarraren traza  
ari gera artzen.
- 7 Gerritik nagi gaude,  
zankoak astunak,  
leenago biguin eta  
arin genitunak.  
Sasoirik aundienak  
pikutara junak,  
gezurra dio ori  
aitortzen ez dunak.
- 8 Zergatik ez aitortu  
egia izanda?  
Aurki beste batzuna,  
orain gure txanda.  
Gorputza zaindu arren  
onenak emanda,  
leenago geio giñan  
sardin-zarra janda.
- 9 Gizonak zenbait gauza  
berezko baditu,  
esango dedanakin  
zergatik arritu?  
Leenago inondikan  
ezin errenditu,  
orain, berriz, neurriak  
berak artzen ditu.



10 Ori aski ez dala  
mintsu gorputzetik,  
beso, lepo, burutik  
edo bizkarretik.  
Auskalo nola gauden  
barrengo aldetik,  
gibel, urdail, birika  
eta biotzetik.

11 Bixta ere laburtzen  
onena emana,  
aitzakiak billatuz  
luzatu aal dana.  
Etsitzeak emango  
digu naiko lana,  
baiña derrior bear  
betaurreko bana.

12 Sendagille batek gaur  
artuko bagindu,  
emango lizkiguke  
amaika agindu.  
Gure gogoz orixe  
egingo bagendu...  
Gero izan bait leike,  
agian, berandu.

13 Ontaz aurrera obe  
ibiltzea kontuz,  
naigabeak aal bada  
uxatuaz kantuz.  
Lagunartean une  
goxoak pasatuz,  
leengo gertakizunak  
alkarri kontatuz.

14 Bukatzera nijoa  
asitako lanak,  
ala ikusten ditun  
norbaitek esanak.  
Berdin ez dute, noski,  
pentsatuko denak,  
berek esan bitza  
konforme ez danak.

# Txakur beltza

---

**N**ERE jaiotetxean, baserrian, gertatua da, eta orrelako edo antzekoak toki askotan gertatuko zirala uste det. Batez ere, gurea orduan zan bezela, bi bizitzakoa eta gazte jendea bizi dan etxeetan.

Sarrerako ateari atalaia jartzen zion gauean etxera azkena zetorrenak edo, ustez, azkenekoa zanak. “Denak etxean izango dituk onezkero” berekiko eta “tranka” atalaia. Baiña, gau artan, batzuk etortzekoak izan artean...


Ni ordurako aldegiña nintzan etxetik, baiña, gero, gazte aiek eta nere aitak esanak, txakur “Bel-txa” aaztu-eziña gogoratuz eta irudimena lanean jarriz, auek irten zitzaizkidan.

Egia esatea  
ez da pekatua,  
daukat aditua,  
txiki-txikia nintzan  
garaiko kontua.  
Gaur ere ez da egongo  
au debekatua,  
ez dezala iñork pentsa  
dala asmatua,  
baizik nere etxean  
bertan gertatua.

2 Danok gera gu, noski,  
gazteak izanak,  
orain ez geranak,  
ta nork ez ditu egin  
orrelako lanak?  
Bein garai bat ezkerro  
gertatzen diranak,  
ez dulako barkatzen  
egundo edanak,  
ori badaki ondo  
proatu duanak.

3 Bi mutil gazte ziran  
etxetik irtenak,  
jakin nai duenak,  
tabernara bidea  
ondo zekitenak.  
“Garaiz gera etxean”  
esaten zutenak;  
aurrez artuagatik  
asmorik onenak:  
deskuiduak izaten  
ala dabillenak!

4 Ogei bat minutuko  
bidea guzita,  
zuzen ibilita,  
motza luze, ordea,  
zearka asita.  
Jaunak dakin garaian  
etxera iritxita,  
ordurako komeri  
asko ikusita;  
nun aurkitzen dituzten  
ateak itxita!



*Jaiotetxea, beste alde batetik begiratuta.*

5 “Oraintxe galdu gaituk  
au dek dezgrazia,  
ola gertatzia:  
atalaiakin zegok  
atea itxia.  
Ordu ontan, uste dit,  
atia jotzia,  
izango dala gure  
buruak galtzia,  
aal dan tokitik obe  
diagu sartzia”.

6 Txakur Beltxa usaika  
berriz barrendikan,  
naiko lo egiñikan,  
sudurra bixtan zula  
ate-txulotikan,  
Ezagutu zituan  
aldez aurretikan,  
ez bazeukaten ere  
betiko antzikan;  
itzegitea falta  
bait zun bakarrikan.

7 “Berriketak utzita  
segi nak atzetik,  
ni noan bidetik,  
denborik galdu gabe  
iñongo aldetik.  
Auxe etorri zaidak  
burura golpetik:  
austen ez badiagu  
leenago kopetik,  
sartuko gaituk errez  
atzeko leiotik”

8 “Ez adi or gelditu  
beldurrez atzean.  
umeen antzean,  
ez dek ezer egiten  
saiatu ezean.  
Ikusten dek leioa  
dagola urrean;  
jartzen bagera bata  
bestean gaiñean,  
an nonbait izango dik  
goikoak parean”.

9 “Orduan gaiñekoak  
bear dik ariña.  
bietan txikiña,  
gauzak ondo ta azkar  
egiten dakiña.  
Izatez eu aizela  
dek gauza jakiña,  
baiña orain jakiten  
asiko bagiña,  
nork botako ote likek  
pixurik aundiña”?

10 Esan bezela jartzen  
asi ziranean,  
ia zuzenean,  
bat bezela bestea  
egon eziñean,  
Azpian indar gutxi,  
karga asko gaiñean,  
gauz onik ez espero  
orrela danean,  
eta “danba” lurrera  
biak azkenean.

11 Txakur Beltxa berriro  
ordun kezkatuta,  
ezin ixildu ta,  
zaunka egiten zuan  
berea ori du-ta,  
Jabea, berriz, jeiki  
zaunkak esnatuta,  
eta bikote ura  
ala aurkituta:  
"Etzabiltzate ola  
aitak aginduta!"

12 Etzaitzeltela jarri  
orain gorri-gorri,  
beiratuz alkarri,  
nik ere bazekiat  
gauza auen berri.  
Eskarmenta zaitezten  
ez dek txarra ori,  
gero ibili gabe  
ola lotsagarri;  
urrengoan etxera  
goizago etorri".

13 Sartu ziran orduan  
bear dan tokitik,  
leen irtendakotik,  
umil eta serio  
jabean atzetik.  
Auxe esan bear det,  
bukatu aurretik:  
iñork gaizki pentsatu  
badu aiengatik,  
oso zintzo portatu  
dirala geroztik.



# Txekor zazpikia

---

**O**NOKO au ere nere baserrian gertatu zan eta oso gutxitan ikusten dan oietakoa. Aita zanak —bertsoetan “aitonak”— esaten zuanez: “Nere denboran makiña bat txekor ikusi dizkiat jaiotzen, baiña, ain txikirik ez”.

Ni, neu, ere dezente ikusia naiz baiña alakorik ez. Txekorra ez baiña, arkumea zirudian. Sanoa izan, ordea, eta azkenerako txekor polita egin zan.

Bertsoak jartzeko beti luma zorrozuta edukitzen nuan orduan —orain ez ainbeste— eta jarri nituan auek, 1987’an, “Xenpelar” Sarian bigarrena atera zuten.

Beiak umea laister  
egingo omen du,  
aitonak esan du:  
“zer gerta ere iñor  
ez bedi aldendu”.  
Une larri oietan  
nola ez lagundu!  
“Aurreratua dator  
ez dabil berandu,  
egiten asi eta  
ederra egin du”!

2 Denborarekin nago  
naiko kezkatuta,  
denak kontatuta,  
zazpi illabeterik  
oraindik ez du-ta.  
Miatzen aritu naiz  
eskua sartuta,  
bizirik dago baiña  
oso larrituta,  
kontuz, onek laguntzak  
bearko ditu-ta.

3 Emen alperrik gaude  
orrenbeste lagun,  
zer egin beagun:  
bear diran amarrak  
prestatu ditzagun,  
Argia itzalita  
aldegin dezagun,  
iñor bixtan ez dala  
etzango da ordun,  
ea, guk, bitartean  
bazkaldutzen degun”.

4 Bazkaltzen asi eta  
erdi bukatuan,  
giñan momentuan,  
orru txiki batzuek  
entzun genituan;  
Ikullura joan giñan  
denok segituan,  
txekorra jaioa zan  
naiz erdi-ituan;  
lan guztiak bakarrik  
egin bai zituan!



*Txekor zazpikia ikus daiteke txakurraren ondoan.*

- 5 Beiak egindakoa  
zala nola esan?  
Ain txikia bait zan,  
ao-zulotik aize  
arnasa ar zezan.  
Bere onera azkar  
asko etorri zan,  
txikia izan arren  
osasuna izan,  
andik ordubetera  
zutikan jarri zan.
- 6 “Albaiteroa bear  
degu nonbaitetik,  
dei aldamenetik”,  
baita etorri ere  
azkar nunbaitetik:  
— Esnea eman baiña,  
biberoi batetik...  
— Gure etxean ez da  
aspaldin ortatik.  
— Ez baldin badezute  
ekarri auzotik.
- 7 Auzoan badaukagu  
txit andre leiala,  
eta bereala,  
berria eman nion  
aal nuan bezela:  
— Biberoi bat derrior  
bear genduala...  
— Aur txikiren bat jaio  
al zaizute ala?  
— Ez —esan nion txekor  
batzentzako zala.

8 Ez dakit sinistu zun  
nik esandakoa,  
ez da arritzekoa,  
baiña denboraz eman  
zidan baiezkoa.  
— Nunbait izan bear du  
nola alakoa,  
ez da izango, noski,  
gaurko modakoa,  
Axier'ek txikitan  
ibilitakoa.

9 “Manta batez estali  
ez dedilla oztu  
eta au ez aaztu:  
amaren esnari  
ur pittin bat naastu.  
Iru ordutik iru  
ordutara juxtu,  
biberoikada ori  
bearko du ustu,  
txikia izatea  
beste gaitzik eztu.

10 Sano itxurakoa  
da nere ustean  
jaten ikasteen:  
pentsua eman lasai  
azpilla batean.  
Nai duan aiña esne  
bien bitartean,  
pixua kontrolatu  
papertxo batean,  
kilo bat irabazi  
bear du astean”.

11 Aitona txoraturik  
dago berarekin  
eta zaintzen jakin,  
ondo konpontzen dira  
biak alkarrekin.  
Ikusten duanean  
biberoiarekin.  
saltoka beragana  
giro da arekin,  
ez du ezer jakin nai  
beste iñorekin!

12 Neurritz arkume bat  
aiña alde-alde,  
zerbait badu alde:  
jale izugarria  
eta pozik gaude.  
Aitonak mantentzen du  
baiña ez debalde,  
— Zenbat kostako ote da?  
egiten du galde.  
Iñoiz ez da egingo  
berrogei erralde!

# Tabakoaren alde txar eta bentajak

**G**AUR utzita banago ere, ez aundi oietakoa baiña, orain iru bat urte arte erretzallea nintzan.

Denon mesederako, noski, eta arrazoi osoarekin, azken urte auetan, neurri zorrotzak artzen ari dira erretzalleen aurka.

Erretzen nuanean, ordea, ez nituan gauzak orain bezela ikusten, edo ez nituan ikusi nai.

Zana zala, neri, erretzalleen babesle edo defendatzalle papera egitea zegokidan; nork bestela...? Eta nola bertsoen bidez baiño egokiago?

Zer dala eta erretzalleon aurka ainbeste zarata?  
Gu zokoratu arteko onik ez dute, ori dala-ta.  
Gutaz erruki zaitezte, arren, errukarriak gera-ta, tabakoaren mende jartzea gaitz bat besterik ez da-ta.

2 Oso errez da ez jakiñean  
tentazioan erortzen,  
zaila, ordea, bein artzen diran  
oitura txarrak baztertzen.  
Mutil koskorrak giñala asi  
arto-bizarra erretzen,  
orain zer da ta: tabakorikan  
gabe ez dakigu bizitzen.

3 Bizio ala gaitza ez dakit  
zer dan tabakoarena,  
dakiguna da bera izango  
dala gure ondamena.  
Jakín nai nuke nola daukagun  
dagoeneko barrena!  
Baiña uzteko ez gera kapaz  
eta ori da txarrena.

4 Utsa egingo ez bagenio  
beste iñori kalterik,  
baiña egiten ez diegunik  
ez daukagu esaterik.  
Su, ke ta usai, gure ondoan  
ez bait dago egoterik,  
eta aitortu dezagun ori  
ez dagola egiterik.

5 Erretzallea eta erretzen  
ez duna apartatzeko,  
asmoak dira ta erabaki  
gogortxoá neretzako.  
Arazoren bat sortu dezake  
senar-emazteentzako,  
batipat leendik erdi-kolokan  
aurkitzen diranentzako.



- 6 Bada garaia tabakoaren  
alde onak aipatzeko,  
kalteen gisa bentajak ere  
azaldu ta goraltzeko:  
besteak-beste, zenbait unetan  
nerbioak kalmatzeko,  
ta bakartien tristurak edo  
naigabeak arintzeko.
- 7 Erretzalleok ibiltzen gera  
beti umore onean,  
ez dana, berriz, erretxinduta  
ikusten da geienean.  
Gu bai gerala xarmangarriak  
lagunen aldamenean,  
etxean onak eta formalak  
kanpoan gabiltzanean.
- 8 Ez det esan nai besteak baiño  
obeagoak gerala,  
naiz ta ez erre, badakit oso  
jende jatorra badala.  
Bakarrik auxe, eta uste det  
ontan arrazoi dudala:  
asmatzalle ta artista aundiñak  
erretzalleak dirala.
- 9 Tabakoaren bentajak, beraz,  
ezin daitezke ukatu,  
inspiratzeko ezin ohea  
astean ezin gelditu.  
Norbait zalantzan baldin balego  
Sebastian'i galdetu,  
pururik erre gabe bertsorik  
ezingo luke kantatu.

10 Nere doai ta sormenak, berriz,  
izanik oso urriak,  
erretze orrek ematen dizkit  
laguntza izugarriak.  
Dagoeneko eun bat zigarro  
izango ditut erriak,  
baiña beraiei eskerrak orra,  
idatzi bertso berriak.

# Adiskide artekoak

---

**A**DISKIDE edo lagun-arte onak ez du gutxi balio. Beti eziñezkoa da baiña, tarteka benetako adiskideekin une atsegiñak eta umoretsuak pasatzea bezelakorik zer? Asko aaztu eta arintzen ditu izan ditzakegun arazo eta penak. Eta nork ez ditu izaten?

Koadrillan adiskide bat bagenduan oso lagun-artekoa zana: Ceferino G.B. “Cefe” guretzat. Gozokin edo pasteleroa zan ofizioz. Asko gozatzen zuan lagun-arteon eta gu ere gustora joaten giñan, urtero, San Sebastian bezperan, txoko artan, lagunentzat prestatzen zuan afarira.

Afari eta afari-ostean, kantu ta broma, giro ederrean pasatzen genduan gaua. Eta naiz, berak, euskeraz jakin ez, gustatu egiten zitzaizkion eta bertsoak eskatzen zizkidan, esanez: *“Joxe, echa unos bersos... Yo, porque no sé euskera, si no...”*

Nik, berriz, beti zerbait eramaten nuan prestatuta, eta kantatu edo lardaskatu ere bai, eta denok kontentu.

“Cefe”, bera, ain zan esku-zabala, leiala eta borondate onekoa, ara zer nion, broman, irugarren bertsoan, gu emen utzita aurretik beste mundura joango zala asko pentsatu gabe:

## 1985'KO SAN SEBASTIAN BEZPERAN

1

Gaurko egunez txoko onetan  
urtero gera gu biltzen,  
San Sebastian bezpera denok  
orrela degu ospatzen.  
Au baiño talde jatorragorik  
nik ez det iñon aurkitzen,  
olako une atsegin auek  
ez dira diruz ordaintzen.

2

Zeruan ez naiz izan oraindik,  
ango berri ez dakit nik,  
eta besterik ez da izango  
emen ori dakianik.  
Baiña une ontan ez det pentsatzen  
antxe bertan ez nagonik,  
izan ere, an bai ote dago  
txoko ontan ez dagonik?

3

Zeruan zuzen-zuzen sartzeko  
badaukat itxaropena,  
naiz mundu ontan ez izan beti  
zintzoa eta zuzena.  
Batipat "Cefe" zerura joaten  
baldin bazaigu aurrena,  
atea berak zabalduko du  
sartu gaitezen barrena!

4

Baiña lagunok ez da komeni  
kanpanak jotzen astea,  
gauz bat da ustea, eta bestea  
zerua irabaztea.  
Gerta daiteke San Pedro'k gauzak  
alderantziz ikustea,  
eta, agian, Ceferino'ri  
berai sartzen ez uztea!

An ere, "Cefe"k bereala egingo zituan adiskideak, eta San Pedro bera aien artean izango dala seguru nago. Beraz, zeruko ateak zabalik edukiko ditu. Goi artan ere adiskidetasunak balioko du, ezta?

# Udako edozein igandetan

---

**L**AGUN-ARTEAN edo koadrillan ibiltzeak baditu bere bete bearrak eta obligazioak ere. Ez pentsa “goazen” esan eta dena egiña dagonik.

Urtearo eta eguraldiaren arabera, zer egin, nora joan eta orrelako planak egin bear izaten dira, eta plana egin bakarrik ez, gero bete ere bai.

Aste-burua irixtean, zer egin erabakitzerakoan, aserrerik gabe, baiña beti sortzen da, eztabaida ez bada, adarra-jotze edo bromaren bat.

Biaramona, igandea, pasatzerako, berriz, zer esanik ez.

Ea zer dioten bertsoek:

bertsoak  
Baditut lagun jakiñak,  
aspaldi xamar egiñak,  
lagun-arte maite dutenak  
eta atsegiñak.  
Baiña ez gera berdiñak,  
baditugu gure griñak,  
geroz geiago, emen ez bait du  
barkatzen adiñak!

2 Ez gera, ez, ain gazteak,  
eta akatsez beteak,  
batzuk burua soilla ta tripa  
galanta besteak.  
Izanagatik usteak,  
merke saltzeko trasteak,  
a ze nolako prendak dauzkaten  
gure emazteak

3 Uda parteko igandetan,  
ondartzara amaiketan,  
plana egiten degu larunbat  
illunabarretan,  
Eguraldiaz izketan  
asitakoan kezketan,  
nitaz fiatzen dira, asmatzen  
bait det geienetan.

4 Baiña ez badet asmatzen,  
ederra dute armatzen!  
Utsegitean ez bait didate  
iñola barkatzen.  
Asmatzean txit aldatzen  
dira ta adarra jotzen:  
Usabiaga ber-berarekin  
naute konparatzen!

5 Igandean jeikitzean,  
giro ona somatzean,  
ez da atsegin izaten gure  
sukalde-ertzean.  
Orrenbeste lan artzean,  
jartzen naiz “mala lechear”:  
orrela ibili baiño obe da  
gelditu etxean!

- 6 Bai, bere lanak baditu,  
nork nik ainbeste meritu?  
Zer egin bear izaten dedan  
arretaz aditu:  
Tomate pilla zatitu  
letxua ondo garbitu  
eta tortilla pare batentzat  
patata zuritu.
- 7 Or ez da bukatzen dena,  
tortilla egin urrena,  
lagunak gaizki oitu nitun da  
ori da txarrena.  
Betetakoan barrena,  
au da esaten dutena:  
“Gure koadrillan, tortilla egiten,  
Joxe da onena”!
- 8 Ain dira gizon bapoak,  
gaztelua aiñakoak,  
bokadillo bat ezertarako  
ez du alakoak.  
Apetitu onekoak,  
oso moko fiñekoak,  
laister bukatzen dira tortilla  
ta gaiñerakoak!
- 9 Izanagatik urtiak,  
sano urdail da estiak,  
poza ematen du jendea ola  
jaten ikustiak.  
Bazkaltzean abestiak,  
ipuiak eta txistiak,  
orduan aazten zaizkit nekeak  
eta lan guztiak.



10 Nik ere badet sabela,  
beste guztiak bezela,  
eta aitortu bear det jale  
txarra ez naizela.  
Jendeak jakin dezala:  
dena gezurra ez dala,  
broma barkatuko al didate,  
galdu naiz bestela.

# Intentzio txarrez ateratako argazkia

---

**O**NDO ezagutzen ez nauenak, eta liburuaren asera ikusita, pentsa lezake edo —esan oi dan bezela— oso gizon formal eta seriotzat ar nazake. Nor berak esatea ez dago ondo, baiña... formalidade aldetik, an nunbait, nik uste.

Seriotasunari dagokionez, ordea, itxuraz kontrakoa izan naiteke: oso broma eta umore-zalea bait naiz.

Eta formal xamarra naizela esan badet, serioa ez naizela esateko ere ez daukat batere lotsik.

Broma eta umorea, sobra gutxi ez al da, ba, gaur ikusten baztarretan?

Orrek ez du esan nai, serio bear danean jartzen ez naizenik; serioegi, agian, zenbait unetan.

Koadrillekoen ustez, ni naiz: zirikatzailea, supiztalla, tentatzailea eta ez dakit zer...

Nik beraiengatik ez det ezer esango, baiña, datozen bertsoak irakurtzen asi orduko konturatuko zera, zerbait eta geiago ere esateko motiboak ematen dizkidatela.

Lasaia izanagatik,  
aserre nago gogotik,  
neri ixilka ateratako  
argazkiagatik.  
Berak ukatuagatik,  
badakit ziur zergatik,  
koadrillan nere kontura parra  
egiteagatik.

2 Makurtuta arrapatu,  
burura "kraxk" disparatu,  
eta argazki ziztriña ortxe  
betiko geratu.  
Ez diot nai begiratu,  
bixtatik erretiratu!  
Argazki ori obe ez banu  
iñoiz eskuratu!

2 Kaskoan daukat utsuna,  
illerik geiena juna,  
eta argazkian ikusten danez,  
ez dago txukuna.  
Eskerrik asko, laguna!  
Ederra egin dezuna:  
begien bixtan jarri gordean  
eduki nai nuna.

"Illea ari zaik juten",  
sari esaten zidaten,  
baiña ikusi ezean gauzak  
ez dira jakiten.  
Ez dakit ondo dakiten  
ze kalte egin didaten,  
dibertitzeko beste modurik  
ez ote zeukaten...?

- 5 Aurretik begiratuta,  
beti txukun orraztuta,  
nere buruko illeaz nengon  
naiko arrotuta.  
Orain, berriz, kokilduta,  
arrokeriak aaztuta,  
jende aurrera ateratzea  
ere lotsatuta!
- 6 Argazkilari txepela,  
eman didazu epela!  
Gauzak aldatu zaizkit, ez dira  
leenago bezela.  
Txanua edo txapela,  
zerbait bearko detela  
seguro nago, edo peluka  
erosi bestela.
- 7 Illerik ez erortzeko,  
eta gazte mantentzeko,  
esan zidaten jakintsu baten  
eskutan jartzeko.  
Ark: "masajeak artzeko,  
ta botika indartzeko,  
eta burua soildu beldurrik  
gabe bizitzeko".
- 8 Entzun nionean ura,  
izugarrizko ardura,  
astero zintzo joanez jakintsu  
aren despatxura.  
Kontua eta itxura,  
gero nolako faktura!!!  
Bapo bizi zan ni bezelako  
tontuen kontura!



*Joxe emaztearekin.*

9 Presumitua naiz nerez,  
baiña ain nago aldrebes,  
txorakeriak utzi bearko  
ditut orain legez.  
Eta ori ez da errez,  
galtzen ez banaiz ezer ez,  
triste nago ta burlarik, beintzat,  
ez egin mesedez.

10 Nola nagoen tristerik,  
etzait falta animorik,  
andreak, laztan egiñez, ez dit  
esaten besterik:  
“Naiz egon erdi-soildurik,  
egon zaite sinisturik,  
ez dala mundu ontan neretzat  
zu baiño oberik!”.

# Gizon baten komeriak

---

**L**AGUN-ARTEKOEN ondoren datozen bertsook moldatzeko gaia, neronen etxetik, egunero ikusten nuan gizon baten jarrera eta ibilleraz oartuta bururatu zitzaidan.

Nik ez nuan inoiz itzegin gizon arekin, baiña ikusi utsarekin antzeman zitzaiokean, gutxi gora-beera, zer nolako komeriak zebilzkian.

Alde batetik ori, eta bestetik badakizute ondo asko, bertsoek diotena ez dala juxtu-juxtu ala izaten. Irudimena edo imajinazioaz ere askotan baliatzen gera, kasu ontan bezela. Nolanai ere, 1987'ko "Basarri Saria" irabazitakoak dira.

*Zer ez ditu esaten  
pertsona iztunak,  
batez ere motibo  
gogorrek ditunak?  
Izketatu nintzala  
badira egunak,  
bai kontu xelebreak  
nik entzun nitunak,  
bertso-bidez dijoaz  
ark esan zitunak.*

1 Badakit ni izatez  
zabarra naizena,  
eta andreak txukun  
eduki nai dena.  
Ori dala-ta nago  
emana ordena:  
“Oiñetakorik gabe  
sartzeko barrena”.  
Auxe da komeria  
etorri zaitena!

2 Zapiak oiñetan da  
zapatak eskuan,  
patinatzen bezela  
itxura gaiztuan;  
zoru irrixtagarri  
ta legun askuan,  
nere burua jarriz  
naiko arrixkuan,  
erortzen banaiz a ze  
kolpea kaskuan!

3 Beste etxe bat ez da  
gure inguruan,  
ainbateko dizdirik  
duanik zoruan.  
Beraz, ez nabil oso  
toki seguruan;  
auxe izango nuke  
onena orduan:  
aidean ibiltzea  
txorien moduan!



4 “Kontuz, au ikutu ta,  
ori ez zikindu”.

Izaten det olako  
amaika agindu.  
Gure bizi-lekuak  
“patena” ematen du;  
baiña nola nabillen  
jakingo bazendu,  
obe nuke ikulluan  
bizi ta mantendu.

5 Bestalde ez da emen  
izango gizonik,  
bizio koxkorren bat  
berekin ez dunik.  
“DUCADOS” batzuk erre,  
besterik ez det nik,  
baiña dauzkadan trabak  
ez dute azkenik,  
uzten ez badet ez det  
izango gauz onik!

6 Nik gustora erretzen  
dedan tabakoa,  
andreak ez du izan  
iñoiz gogozkoa.  
Gaiñetik propaganda  
izugarritzkoa,  
orrek berotzen dio  
ederki kaskoa;  
denak aurka dauzkagu  
ez da bidezkoa.

7 Zigarroa erretzen  
asten naizenean,  
eztulari ematen  
dio zuzenean.  
Apropos egingo du  
ori, onenean;  
ez ikusteagatik  
ala aldamenean,  
komun-zuloan sartu  
bear azkenean!

8 Antxe exeri eta  
iru gauz batean:  
erre, deskarga egin,  
letu bitartean.  
Zigarroaren kea  
ta kirats artean,  
iñork ez uste arren  
atsegin betean,  
txarrena, ate-joka  
kanpotik astein!

9 Oraintsu arte banun  
toki bat sikira,  
baiña gauzak ederki  
aldatuak dira.  
Gaur egun bidaltzen nau  
atzeko balkoira;  
antxe zigarroari  
tira eta tira,  
aurrez-aurre daukadan  
ormari begira.

10 Udan balkoia degu  
paraje mospela,  
eta neguan ez da  
izaten epela.  
Kastigatzen banaute  
gaur arte bezela,  
artu beariko ditut  
manta ta txapela,  
ondoez txarren batek  
joko nau bestela!

Gaitz txarra izango da  
nikotinarena,  
uste gabe ondatu  
lezake barrena.  
Eraman-gaitza, berriz,  
emaztearena;  
ez dakit zein ote dan  
bietan txarrena,  
bat utzi beariko det  
baiña zein aurrena?

# Lazkao-Txiki tentatu nairik


---

**B**ERTSO auek 1º “Lazkao-Txiki Bertso-Paper Saria” antolatu zala jakin nuanean moldatu nituan.

Gai librea zanez, izenburuak dion bezela, Lazkao'ko bertsolaria, G.B., bera artu nuan gaitzat eta alkarrizketa moduan egiñak daude bertsoak. Bion papera neronek egiten det, berarekin iñolako arremarik izan gabe. Bere papera ondo ala gaizki egiña dagon... Ori zuek esango dezute.

Ez pentsa, izan nituan nere kezka ere: zer irudituko ote zaio? Nola artuko ote ditu? Eta abar. Baiña Joxemiel bera ere alakoa zanez, ez nuan izan iñolako arazorik.

Lazkao-Txiki deitzen dizute  
ta ez da arrigarria,  
alakoxea izanik zure  
gorputzaren neurria.  
Ez dakit baiña, irudipen bat  
daukat buruan jarria:  
jaiotakoan ere etziñala  
izango izugarria!



- 2 Ori jakin nai baldin badezu  
ara nik entzundakua:  
"Ez oso aundi, ez oso txiki,  
tamaña politekua.  
Alde-aldeko kalkuluetan,  
sei libra ingurukua,  
ama zana ere txikia zan da  
bai omen zuan naikua".
- 3 Itxura danez, motiborikan  
etzan nere iritziko,  
aur dexentea jaio ta gero,  
orren txiki gelditzeko.  
Arrazoiren bat bazan, ordea,  
zuri ori gertatzeko,  
eta esaidazu zer izan zendun  
geiago ez azitzeko?
- 4 Nik ze arrazoi izandu nuan  
ez dago zailla jakiten:  
gauean lo ta egunez, nonbait,  
parrezka nintzan egoten.  
Gosetu arren ez nuan, berriz,  
iñoiz negarrik egiten,  
eta, jakiña, titirik ere  
ia etzidaten ematen.
- 5 Lazkao ez da aundia baiña  
fraile ugari eman du,  
naiz ta gaur beste nunai bezela,  
fedea asko aldendu.  
Lenago sartu ezean, orain  
zuretzat naiko berandu,  
gazte denboran tentaziorik  
ez al zenduan izandu?

- 6 *Frailtzarako ez nuan falta  
bokazio ta federik,  
egingo nintzan, gaiñera, itxi  
ez bazidaten aterik.  
Baiña ara zer esan zidaten:  
“Ez degu nai ain txikirik,  
meza emateko aldareraiño  
irixten ez dan frailerik!”*
- 7 *Fraile etziñan sartu ta gero  
andrerik ere artu ez,  
zugatik neska-zaar geldituak  
badira iru gutxinez.  
Oraindik ere zai omen daude,  
ezkondu gabe zaudenez,  
ainbat sufritzen eduki gabe  
esaiezu bai edo ez.*
- 8 *Bati baietza eman ezkerro  
auskalo zenbat komeri,  
besteak penaz ilko lirake  
eta ez nuke nai ori.  
Bestalde auxe entzuten diet  
ezkondutako askori:  
“Libre obeto bizitzen da-ta,  
kontuz lazoan erori!”*
- 9 *Txoria bezin alaia eta  
kantua gogozko dezu,  
txorien gisan egan joateko  
egoak falta dituzu.  
Gizonik txoriena edo txori  
gizonena bait zera zu,  
ze mota zeran jakin nai nuke  
eta, arren, esaidazu.*

10 Txori kantari ederrenaren  
antzeko nai nuan izan,  
baiña lumaje itxusia det  
ikusten dezuten gisan.  
Kantatu, berriz, ondo kantatzen  
detenik ezin da esan,  
“Urretxindorra izan nai eta  
“Txioa” gelditu nintzan”.



# Neronenak

---

**N**ERE buruarekin zer ikusia duten bertsoak datoz jarraian. Gai ezberdiñak erabiltzen ditut, baiña oso ximpleak dira: eguneroko bizitzan edonorri gerta edo sor lekizkioken arazo eta gora-beerak.

Esate baterako, orain ez da entzuten baiña, larogeiko amarkadan edo, oso modan egon zan "BIOMANAN" itza. Propaganda ere alakoa eta, zenbait gai ikutu ezkerro, danok erabiltzen genduan aotan. Danok dakigu, beraz, zer dan, baiña bietako bat: oso ona da eta ez du propaganda bearrik, edo bein proatu duanak geiago nai ez eta erabat baztertuta gelditu da. Kustioa da ni neu ere proatua naitzela. Propagandarengatik, besteak ikusten nitualako, premia naukalako edo presumitzeagatik, agian, baiña proatu; eta ara nere esperientzia: BIOMANAN? EZ, ESKERRIK ASKO

I Dotore eta lirain  
gazte geranean,  
sasoia danean,  
baiña urteak gora  
dijoazenean...  
eta "zilborra" azitzen  
asten zaigunean,  
komeriak luzitu  
bear degunean,  
batez ere udara  
datorkigunean.

2 Naiko ongi konpondu  
arren gainontzean,  
udara eltzean,  
errejimena jartzen  
da gure etxean,  
"BIOMANAN" eguerdin  
eta arratsean,  
aserre ibiltzen naiz  
dieta jartzean,  
ez dakizute asko  
nolako "letxean".

3 Lenengo farmaziko  
baskulan pixatu,  
txartela eskatu,  
an, zenbat kilo diran  
gero apuntatu.  
Galdu bearrekoak  
ondo kalkulatu,  
pixua astean bein  
zintzo kontrolatu,  
eta ze "BIOMANAN"  
nai dan aukeratu.

4 Gu, geienok, izanik  
moko fiñekoak,  
nai dan motakoak,  
erosi ditzakegu  
ara nolakoak:  
txokolate, marrubi,  
moka gustokoak,  
oiek dira, nik beintzat,  
proatutakoak,  
gustoz ezezik denak  
oso antzekoak.

5 Alimentua badu,  
esaten dutenez,  
edozein edanez,  
gauean okerrena,  
an nunbait egunez.  
Gosearekin kasik  
lo egin eziñez,  
tripa soiñuka utsik  
dagola esanez,  
ixiltzen da ur trago  
batzuek egiñez.

6 “BIOMANAN” bereak  
egiten astean,  
jateai uztean,  
lau kilo galdu nitun  
lenengo astean.  
Au zioten nigatik,  
denak, ikustean:  
“beste bat ematen du  
zilborra jextean,  
or dabil Robert Redford  
dalako ustean.

7 Bigarreanean iru  
kilo gutxiago,  
galtzak lasaiago,  
umore ta jenioz  
geroz okerrago.  
Au nion, nerekin,  
pixkat geroago:  
martxa ontan nerekin  
gauz onik ez dago,  
janari klase ori  
ez det nai geiago!

8 Naiago det ibili  
leengo esanetan,  
betiko moldetan,  
presumitu ez arren  
gero Ondarreta'n.  
Gorriak jasan ditut  
ainbat egunetan,  
bi egun pasatzeko  
mundu txar onetan;  
nolaz asi nintzan ni  
olako lanetan?

9 Emanagatik zenbait  
uste ta iritzi,  
garbi nai det utzi:  
argaltzeko oberik  
nik ez det ikusi.  
Naiago det, ordea,  
leengo eran bizi:  
naikoa jandakoan  
zilborra igurtzi;  
goseak bizitzeak  
ez bait du merezi!

# Larunbateko kalejira

---

**E**Z dago orduko konturik. Gaur nunai, ia etxe ondoan, aurki dezakegu denda erraldoi edo supermerkatu oietakoren bat. Baiña Mamut, Pryca eta abar jarri berri artan nor ez gera joan, aste buruetan batipat, bear diran eta, agian, ez diran erosketak egitera eta kotxea bete-bete eginda etxeratu?


Zu ez dakit, baiña gu bai. Ez dakit ez ta ere guri bein gertatu zitzaiguna edo antzeko zerbait iñoiz gertatuko zitzaizun. Ara zer:

Doiñua: Xenpelar'en betroiarena.

Larunbat goiza daukat  
txit okupatuta,  
Supermerkaturako  
izendatuta.  
Leenago emaztea  
laguntzat artuta,  
biok joaten giñan  
kotxean sartuta;  
naiz egon lotuta,  
pozik lagunduta,  
iñoiz zapuztuta  
ez naiz gelditu-ta;  
ortan paregabea  
nere konduta!

2 Garaiz irixten giñan  
Super-atadira,  
erosketak egiten  
diran tokira.  
Zuzenean asten zan  
gure kale-jira;  
ofertarik onenak  
nun zauden begira,  
zenbat jira-bira!  
Ezker-eskubira,  
aurkitzean tira  
artuta gurdira;  
aizu, gangak orrela  
egiten dira!

3 Amarrak inguruan  
lanari ekiñik,  
amabitan oraindik  
irten eziñik.  
Baiña ez pentsa geldi  
egoten giñanik,  
baizik kilometroak  
ugari egiñik;  
ez nuan egunik,  
kaskarreko miñik  
izaten ez nunik,  
zoratu azkenik,  
Jainkoak dakin ainbat  
buelta emanik.



4 Bein zer pasa zitzaigun  
bear det kontatu,  
zuei ez al zaizute  
iñoiz gertatu?  
Jun aurretik ez giñan  
ondo informatu  
eta izugarrizko  
ofertak tokatu;  
guk aprobetxatu,  
gurdia kargatu,  
neurritz pasatu,  
gero bai damutu!  
Ordaintzeko dirurik  
ezin osatu!

5 Pasatu genituan  
egundoko lotsak,  
koloreak gorritu,  
salto biotzak.  
Miatuagatikan  
kartera eta poltsak,  
eta astindu arren  
patrikako autsak;  
aiek ere utsak,  
bai une garratzak;  
kajera zorrotzak,  
nolako marmaitzak;  
esan zigun uzteko  
bertan arrautzak!



6 Olloek egindako  
arrautzak, jakiña,  
aiek eman ziguten  
penik aundiña.  
Oso merke artuta  
eraman eziña,  
dirurik etzalako  
danentzako diña;  
falta zan pititiña,  
etzan asko baiña,  
okerra egiña,  
berriz, alajaiña!  
Aaleginduko gera  
artzen tamaña.

7 Arrezkero etzaigu  
pasa alakorik,  
ez da eskarmentua  
bezelakorik.  
Orain joaten naiz oso  
modernizaturik:  
kalkulatzeko tresna  
eskuan arturik;  
ez nuan oiturik,  
baiña bearturik,  
nago trebeturik,  
bai ote oberik?  
Nekez asia ez det  
beste damurik!

8 Gauza guztiak zuzen  
egiten ditunik,  
ez det uste munduan  
izango danik.  
Denak bezela nere  
akatsak izanik,  
ez da konpra obeto  
egiten dakinik;  
badago gizonik,  
aundi ta gizenik,  
olako aalmenik  
berekin ez dunik?  
Aiek alako doble  
balio det nik.

# Zorigaiztoko gaua

**N**ORK ez ditu, udan beroaren-beroz, gelako leioak zabaltzen lo egin aal izateko? Eta nori etzaio, orduan, moskitoren bat edo beste sartu izan?

Eta, lo egingo badu, bera arrapatu edo akaatu arteko onik edo pakerik ez.

Guri bai, bein baiño geiagotan, leioa zabalik degula lo egiten degu-ta.

Baiña, zorigaiztoko gau artan bixitariak izan genituan eta ez genduan lo askorik egin

“Zapirain Anaiak” Bertso-Paper leiaketako bigarren saria eskuratu zuten bertso auek, 1991'gn. urtean.

Gertakizun au ez da  
iñork asmatua,  
edo kontatua,  
baizik nere etxean  
bertan gertatua.  
Gau geiena borrokan  
nuan pasatua,  
utsa zan irabazi  
banu apustua:  
galdu ta parregarri  
nintzan gelditua.

- 2 Kontrarioa ain zan  
txiki ta mearra,  
baiña bai azkarra:  
eltxo edo Moskito  
ankame kaxkarra.  
Astindu arren gogor  
nere atzaparra,  
ez nuan arrapatu  
eta "kaka zaarra"!  
Alu arek ederki  
jo zidan adarra!
- 3 Borroka aseratik  
bear det kontatu:  
eltxo bat topatu  
gelan, da eskobakin  
nintzan preparatu.  
Iru kolpe tirata  
ez nun arrapatu,  
itxura danez oso  
gaizki apuntatu,  
laugarrenean jo ta  
lanpara puskatu!
- 4 Lanpara argirik gabe  
dinbili-danbala,  
eroriko zala  
uste nun, zartakoa  
ez bait zan makala!  
Andreak ezan zidan  
otsoa bezela:  
"Eskoba utzi zazu,  
ez izan txepela!"  
Berarekin emango  
zidala bestela!

5 Egindako okerraz  
nengon damutua,  
eta kezkatua,  
lanpara utzi bait nun  
dena txikitua.  
Baiña ez nun merezi  
alako tratua;  
ordaindu nun ederki  
nere pekatua;  
ezer ez bota izan  
banu moskitua!

6 Lanpara artan etzan  
argirikan pizten,  
moskitoa konten,  
jakiñik zer nolako  
begiak dituzten.  
Guk, berriz, nun sartu zan  
ez gendun ikusten,  
“ziur ariko dala  
miztoa zorrozten;  
apustu: ez digula  
lo egiten uzten”.

7 “Baietz azaldu laister  
oan sartzean,  
eta ixiltzean,  
berari, lo gaudela,  
iruditutzean.  
Geldi-geldirik egon  
nunai gelditzean,  
jo ta garbituko det  
miztoa sartzean;  
ara emen da nere  
belarri ertzean”.

8 Andreak: —Nun gelditu  
zaizun esaidazu;  
— Bekokian dezu.  
— Nik arrapatuko det,  
geldirik egon zu.  
— Kolpe seko-sekoa  
tira ezaiozu  
Illunpean asmatzen  
kosta bear zaizu.  
— Nigan ain konfiantza  
gutxi al daukazu!

9 Begiak itxi eta  
estu-estu ortzak:  
“Datorrena artzak;  
miña-miñ, moskitoa,  
beintzat jo ta iltzak”.  
Oietxek nereko  
esandako itzak;  
gortuta utzi nindun  
zartakoan otsak,  
eta bai kendu ere  
kokotzeko otzak!

10 Moskitoa, jakiña,  
etzuan ikutu,  
naiz ta ni zauritu;  
beeko ezpaiña, dena,  
zitzaidan aunditu.  
Baiña eltxoa ere  
nola ez larritu?  
Eta sustoz iltzea  
batere ez arritu;  
gau artan, beintzat, etzan  
geiago sentitu.

# Nere irratitxoa

---

**B**IZITZAREN alabearrez edo, etxean bakarrik, ordu asko pasatzen dituan oietakoa naiz, irakurle.

Ori dala-ta, entretenigarri eta lagungarri bezela, irratia piztea eta entzutea ez da arritzekoa.

Eraman errezagoak egiten zaizkigu orduak eta egunak; eta konturatu gabe beraren lagun egiten gera.

Ain lagunak, irratirik gabe ez genduke errez etsiko. Egunez asko ez dala, gauez ere, belarri ondoan ez badegu, ez degu onik izaten-eta.

Luma ondo zorroztuta,  
IRRATIA gai artuta,  
bertso batzuek jartzera noa  
merezi ditu-ta.  
Egun osoan piztuta,  
batzuk erdi-zapuztuta,  
gauean ere entzuten bait det  
oan sartuta!

2 Goizean esnatutzean,  
belarriaren ertzean  
artuta entzun, naiz arkar jeiki  
ordua jotzean.  
Bein bat orrela oitzean,  
gaizki gabe gelditzean,  
orregatik nik eramaten det  
bañura sartzean.

3 Bañu-zuloko lanetan,  
goizeko ordu oietan,  
badakizute eta ez noa  
esatera zertan.  
Ibili gabe ezertan,  
IRRATITXOA an bertan,  
zeiñen ederki entzuten dudan  
ixiltasun artan!

4 Albiste eta kantuak,  
edo beste asuntuak,  
egiñez pozik pasatzen ditut  
antxe minutuak.  
Naiz ango pake santuak,  
minutuak kontatuak,  
atea jotzen asten dira-ta  
orduan kontuak!

5 Lendabiziko ordena:  
“Irten aal dan azkarrena!”,  
Badakit larri iristen, dana  
ara datorrena.  
Baiña pozik zegoena  
errespetatu aurrena;  
iñoren onik ezin eraman,  
ori da txarrena!



- 6 Ala irteten naiz andik,  
ia jantzi gabetandik,  
iñork kejarik izan ez dezan  
ortan neregandik.  
Beartu gabe iñondik,  
esango ditut emendik,  
ondorengoak okerragoak  
bait dira oraindik.
- 7 Naiko aserre egunez,  
gauean zer esanik ez,  
“mesanochera” eramateko  
oitura dedanez.  
Oeko nere lagunez  
aaztu ta gero ezer ez  
lo artzen bait det, nere IRRATI  
kuttuna entzunez.

# Ofizio berria zaartu eta gero

---

**G**IZONOK “matxista” fama degu eta ala izango gera amarretatik zortzi. Ori aitortzen degu, naiz askotan, geiegitan, aaztu egiten zaigun arren.

Baiña, emakumeek ere ez gaituzte, beti, bear dan bezela tratatzen. Inutilizat artzen gaituzte: “Ez dakite ezer egiten; berak eginda jan bear balute, goseak ilko lirake; ez dakite gauzak billatzen; zikiñak jango lituzke” eta abar esanez.

Ni, beintzat, ez nago ados ortan, ez da gutxiagorik ere. Asko ezagutzen ditut, kanpokoak ezezik, etxeko lanak txukun eta ondo egiteko iñoren bearririk ez dutenak.

Emakumeak gizonaren lanak egin ditzaken eta egiten dituan bezela, gizonak ere berdin-berdin egin litzake emakumeenak, beartu ezkerro. Bearra da maixurik onena. Bearra eta borondate pixka bat. Gizonaren aldetik, izan dezaken borondateari dagokionez, andreak badu ortan zer ikusirik; zuek dezuten abildadearekin...!

Bertso auek ez dira zaarrak 1994'an jarritakoak; eta “Zapirain Anaiak” saria eman zidaten urte artan. Ea zer diozuten:

1 Nere denboran naiz ofizio  
asko proatutakoa,  
lana gogotik egiñagatik  
beartsu bizitakoa.  
Zaartuta gero beste berri bat  
soldatarik gabekoa,  
eta beldur naiz auxe izango  
ote dan azkenekoa...

2 Ofizioa nolakoa dan  
bear dizutet kontatu:  
“etxeko lanak” deitzen zaiona,  
au ere neri tokatu!  
Ori dala-ta, nere bizitza,  
orra zearo aldatu:  
etxekoandrea lanera ta ni  
“etxekojaun” izendatu!

3 Pozgarria da, edade ontan,  
“titulo” auek lortzea,  
eta etxeko jaun eta jabe  
zerala konturatzea.  
Baiña tristeia leenago nuan  
askatasuna galtzea;  
ez dakit, baiña kosta bear zait  
etxe-zuloan oitzea.

4 Ofizioaz ez da jabetzen  
egun batetik bestera,  
zer esanik ez, zaartuta gero,  
ikasten asten bazera.  
Baiña, bearra lagun, denboraz  
aterako det “karrera”,  
ederki asko bete ere bai  
etxekoandreen papera!

5 Aseran naiko estu ta larri  
lana arrotza izanik,  
“filosofia” apur batekin  
artu nuan, ordea, nik.  
Organizatzen jakin ezker  
ez dago ezer astunik;  
ez nuan asko pentsatzen orren  
ondo pasako nuanik!

6 Esnatu eta leendabiziko  
lana: piztu irratia,  
eta oean nagola entzun  
zazpiretako “partia”.  
Komeni baita gertatzen danaz  
jabetuta egotia,  
batipat iges joandako “Roldan”  
nun dabillen jakitia!

7 Zortzitan jeiki zer egin bear  
dedan aurrez pentsatuta,  
jeikitzerako edukitzen det  
guztia programatuta:  
oeak egin, bizarra kendu  
eta ondo gosalduta,  
garbiketari ekiten diot  
aspiradora artuta!

8 Aspiradora martxan jartzean  
artista banintz bezela,  
esan bear det berealaxe  
kantari asten naizela.  
Jakiñagatik kantu lanean  
tutikan ez dakitela,  
zaratarekin iruditzen zait  
ondo kantatzen detela!

9 Nolanai ere irratitxoa  
beti belarri ertzean,  
eta badakit zer entzun bear  
detan une bakoitzean.  
Berri txar eta politikoen  
esanekin aspertzean,  
gustoko zaidan musikarekin  
igoal asten naiz baltsean...

10 Sukaldaritzan, berriz, nengoen  
eskas antxean talentuz,  
baiña ikasten ondo ari naiz  
Argiñano'ri jarraituz.  
Janari goxo-goxoak jartzen  
ditut eta "pulamentuz";  
oso gustora jaten dituzte  
beatz-muturrak txupatuz!

Baiñu, sukalde ta ontziekin  
ez daukat buru-austerik,  
denak ederki garbitzen dizkit  
"Mister Proper" edo "Fairy" k.  
Ez dago tanta bat bota eta  
zapia pasa besterik;  
edo ez al da zuen etxeetan  
ikusten telebixtarik...?

12 Ez naiz arritzen etxeoandreek  
soldata bat eskatzea,  
proatu gabe ez baita errez  
lan au zer dan oartzea.  
Merezi arren ez det espero  
xentimorik kobratzea,  
baiña, gutxinez, lortu det beintzat  
lanean dibertitzea.

13 Bestalde gure “ekonomia”  
asko ondu da nerekin,  
orain obeto jaten degu ta  
diru gutxiagorekin.  
Banku ta Kutxa bolara ontan  
kontentu daude gurekin;  
noiznai galdezka: “Zer egin bear  
dezute diruarekin...?”

14 Nere burua famatutzerik  
etzait sekula gustatu,  
milla motibo izanagatik,  
bestela zuek juzkatu:  
primeran pasa, ondo jan eta  
gaiñera gutxi gastatu;  
gizon zaar bati gauza geiago  
ezin daiteke eskatu!



*Bere "hobby" etako bat: bonsai-gintza.*

# “Hobby”ek mendean artu naute

---

**L**ANARI uztean, erretiratzean, ez da batere ona —txarra esango nuke— zer egin ez daki-gula gelditzea edo utzikerian erori eta ezer egin gabe egotea. Batere obligaziorik gabe, denbora pasa, milla gauz egin daitezke, gogoia izan ezker.

Baiña, kontuz! Gauzak bere neurrian... Gerta daiteke, “hobby” bat baiño geiago edo asko izan eta, erretiratutakoan, leen egiterik izan ez dituan guztiak egin nai izatea.

Eta, ori, gerta daiteke, aurreko kasoia baiño okerragoa izatea oraindik. Beldur naiz orrelako zerbait ez ote zaidan gertatu...

Humor

Au edo ori dalako uzten  
diogunean lanari,  
uste ez dala sortzen zaizkigu  
ez dakit zenbat komeri.  
Batzuk erabat alpertu eta  
utzikerian erori,  
besteok, berriz, iñola ezin  
erantzun ainbat “hobby”ri.



- 2 Alperkerian erortzen danak  
ez du izango gauz onik,  
alakoari, alperrik da-ta,  
ezaiozu eman lanik.  
Baiña, “hobby”ak menderatuta  
ere ikusten ditut nik,  
oietako bat neroni naiz ta  
ez pentsa obea danik!
- 3 Afizio bat bakarra banu  
utsa litzake sikira!  
Denak kontatzen asi ezkerro  
dozena erdi bat badira.  
Eta, jakiñik, nere aalmenak  
jetxi dirala erdira;  
ontaz aurrera obe det egon  
ari danari begira...
- 4 Bertsoak jarri, “bonsai”ak zaindu  
eta egurra tallatu,  
beste “hobby”en artean oiek,  
nola ez lana pillatu!  
Denak nai eta ezin iritxi,  
ze irtenbide billatu?  
Uzteak lanak emango dizkit,  
baiña ez det nai erotu!
- 5 “Bonsai” mundura iritxi nintzan  
berandu baiña benetan,  
eta uste det bera detala  
gustokoena danetan.  
Ori dala-ta, etxeko denak,  
ikusten ditut kezketan,  
noiznai somatzen bait naute nere  
“bonsaitxo”ekin izketan...

- 6 Erdi erotzat artzen naute ta  
orra zer duten esaten:  
“Gero gurekin itzegiteko  
ez du gogorik izaten”.  
Nik erantzuna jakin, ordea,  
bear bezela ematen:  
“Itzegiten det, oiekin, baiña  
ez det erritik egiten”!
- 7 Jakiñik lore eta “bonsai”ek  
ere bizia dutela,  
amaika aldiz entzun izan det  
itzegin bear zaiela.  
Beraz, nerekin ez dakit nola  
jarri daitezken orrela;  
dударik gabe “zeloak” dira,  
ez det ulertzen bestela...
- 8 Ordu ugari pasatzen det, bai,  
“bonsai” artean sartuta,  
etxeko eta kanpoko beste  
zenbait gauzetaz aaztuta.  
Konturatzen naiz: zaletasunak  
nauka mendean artuta,  
primeran bizi besterik ez da  
nola nabillen zaartuta...!
- 9 Ain da ezaguna, aipatze utsak  
ematen dit apurua:  
sozialisten Presidenteak  
berotu zidan burua.  
Ark bezin onak lortzea, berriz,  
izan nere elburua,  
aalegin danak egingo ditut  
baiña ez da segurua.



*Bonsaietako bat.*

10 Gonzalez jaunak Moncloa aldean  
bazuan bonsai ederrik,  
bestek zainduak, eta nik, berriz,  
ez det iñoren bearrik.  
Felipe joan zan eta "bonsai"ak  
egongo dira bakarrik,  
obe, "bonsai"ak ez bait du maite  
olako gizon baldarrik.

11 Aldegin zuan baiña ez jakin  
ziur zenbat denborako,  
eta nork daki mesederako  
edo degun kalterako?  
Aznar'ek, berriz, ez badu artzen  
denborik lan ortarako,  
"bonsai"ak ilko dira Felipe  
berriro itzultzerako.

# Badaukat naiko eragozpen

---

**Z**EIN etxetan ez da sortzen eztabaidarik, adibidez, telebista dala-ta?

Zenbat aldiz: onek au ikusi nai, orrek ura, eta arek, ez dakit zer?

Gaur, bakoitzak bat ez dakit, baiña bi edo iru telebista diran etxeetan ez, noski, baiña bakarra dan tokian ez da faltako eztabaidarik.

Nerean, ori, sarritan gertatzen zan: nik Pelota edo Futbola ikusi nai, eta gañontzekoek beste zer-bait, eta...

1990/01/01

Futbola alde batetik  
eta Pelota bestetik,  
bi kirol oiek gogozko ditut  
txiki-txikitatik.  
Baiña nik telebistatik,  
ezin ikusi ortatik,  
eta oraintxe atera naute  
nere onetatik!

- 2 Futbola edo Pelota  
danean beti zarata:  
“Gaur utzi guri, pelikula bat  
polita dago-ta”.  
Esanagatik “puñeta”  
eta illundu kopeta,  
nik arrazoirik ez det iñondik  
bakarrik naiz-eta.
- 3 Futbol garaia astean,  
iru partidu astean,  
ikusiz gero konten nintzake  
ni orrenbestean.  
Baiña, tarteka, uztean:  
“Derby”a afal ostean;  
au konponduko det Telebista  
txikia erostean!
- 4 “Derby”ko Josu Loroño:  
anaiak gaituk gu, baiño,  
aspertuxea naukak oraintxe,  
etzekit noraiño!  
Atletik jaso goraiño,  
Reala, berriz, ain ñaño,  
ezagun dik, bai, i bizkaitarra  
aizela, “Moñoño”.
- 5 Nola nagoen mindua,  
orain joko det “bandua”:  
Kendu didate telebista ta  
gaiñera “mandua”.  
Jetxi da nere gradua,  
badet zeñnek agindua,  
leen nagusia nintzan da orain  
etxeko mandua!

6 Egundoko amorruan,  
au egiten det orduan:  
irratitxoa artu ta jarri  
belarri onduan.  
Ala, pare bat orduan,  
Reala'k zer egin duan...?  
"Santa la Virgen", galdu egin du  
azken segunduan!

7 Telebista orri esker  
Retegi'n eskubi-ezker,  
edo Ronaldo'n golak ikusi,  
gauza oberik zer?  
Etxean, ordea, oker,  
etzaie gustatzen ezer,  
eta nik entzun bear "La Cope"  
edo "Cadena Ser".

8 Nola nabillen jakiñik,  
errukituko ez danik,  
liteke baiña, ez det uste nik  
aurki daitekenik.  
Ez det izango aalmenik,  
kentzeko barruko penik,  
era onetan kastigatzeko  
zer delito det nik?

9 Ez diot antzik ematen  
nere aurka zer daukaten;  
danok ikasi beariko degu  
amore ematen.  
Naiz leen aritu esaten,  
ez dakit egingo deten,  
bi telebista asko bait dira  
familia baten.

10 Egin nai bada onera,  
bete nere eskaera:  
eman Pelota eta Futbola  
ikusteko aukera.  
Ala, konponduko gera,  
bestela, banoa beera,  
neretzat beste telebisio  
berria eroatera!



# Azken agurra

---

Bertso-liburu bat egitea  
pentsatu egun batean,  
ez dakit nola, baiña bai egin  
ere "ALAKO BATEAN".  
Ta bertso denak nola ez diran  
sartu liburu batean,  
agian beste bat aterako  
degu alako batean.

# Arkibidea

---

Itzaurrea (Bartolo Ayerbe zanak) .....	9
Eskerrik asko .....	12
Aitaren eriotza .....	14
Xegundo Kalonje adiskideari .....	16
Jakin dezazun .....	19
Soldadutza .....	20
Ezbearra .....	23
Joxe Migel Maiz'i .....	29
Egunkari illa .....	34
Yon Oñatibia zanari .....	40
Fermin Gorostizu'ri .....	43
Felix Erdozia .....	45
Ortiz eta Berrio .....	48
Minbizia .....	51
Batzuek geiegi eta besteak ezer ez .....	57
Zaar-saridun batek esanak .....	62
Gure baserriak .....	68
Urumea ibaia .....	73
Nere kezkak .....	78
Gazte baten aitormenak .....	82
Munduratzera zoazen orri .....	86
Arriak negar egin lezake .....	91
Egoerak kezkaturik .....	94
Txakurra mintzo .....	98

Udaberria .....	102
Udazkena .....	105
Negua .....	109
Kukua noiz entzungo zai .....	113
Nere beste zaletasunak .....	117
Maite d125itzagun mendiak .....	121
Perretxikuen inguruan .....	125
Pelota euskal-jokoa .....	129
Julian, etzoazela oraindik! .....	132
"Topete" zanari .....	136
Errealari .....	139
Bein berrogei urtetik gorako kontuak .....	143
Txakur beltza .....	148
Txekor zazpikia .....	154
Tabakoaren alde txar eta bentajak .....	160
Adiskide artekoak .....	164
Udako edozein igandetan .....	167
Intentzio txarrez ateratako argazkia .....	171
Gizon baten komeriak .....	176
Lazkao-Txiki tentatu nairik .....	181
Neronenak .....	186
Larunbateko kalejira .....	190
Zorigaiztoko gaua .....	196
Nere irratitxoa .....	200
Ofizio berria zaartu eta gero .....	203
"Hobby"ek mendean artu naute .....	209
Badaukat naiko eragozpen .....	214
Azken agurra .....	219



1051092

G-129/2



## Joxe Ayerbe

Donosti'ko Loiola'n bizi dan Joxe Aierbe, eza-guna da idazle modura eta bertso-jartzaille bezela. "El Diario Vasco" egunerokoan ere agertu izandu dira bere lan txukunak eta ipuiak.

Bere ogibidetik aparte, zaletasun eta adur oiek ditun gizona ezin ziteken egon liburu bat argitaratu gabe, eta emen dezu, irakurle, bere bertso-liburu atsegiña "Alako batean" izenarekin.

"Enborretik ezpala" dio esaera zarrak, eta ala degu Joxe; bere aita zana zan Bartolo Aierbe, "Auspoa" sail ontan bi liburu argitaratu zituna "Nere Mundualdia" eta "Zaarrak berrituz" izenez bataiatu ziralarik. Alako arrera ona izan zuten, gaur biak ia agortuan daudenak zorionez.

Suerte berdiña izan dezala semearenak ere, eta zorionak adiskide miñari.

*Txomin Garmendia*



Donostiako Euskararen  
Udal Patronatuaren  
laguntzarekin argitaratua



Euskaraz Bizi

ISBN 84-89080-63-1



9 788489 080638